EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila

Doktorego-tesia

Osasun-alorreko termino-sorkuntza automatikoa: SNOMED CTren eduki terminologikoaren euskaratzea

Olatz Perez de Viñaspre Garralda

2017

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila

Osasun-alorreko termino-sorkuntza automatikoa: SNOMED CTren eduki terminologikoaren euskaratzea

Olatz Perez de Viñaspre Garraldak Maite Oronoz Anchordoqui eta Jon D. Patricken zuzendaritzapean egindako tesiaren txostena, Euskal Herriko Unibertsitatean Informatikan Doktore titulua eskuratzeko aurkeztua.

Donostia, 2017ko maiatza.

Amari eta aitari

Eskerrak

Ez dira gauzak apenas aldatu tesia hasi nuenetik! Tesia Donostitik ihesean hasi nuen, bizitokia nire bihotzeko Gasteizen ezarrita, eta orain, nire lagunek dioten bezala "erabat ñoñostituta". Bilakaera honetan tesiak eragin handia izan badu ere, eragin are eta handiagoa izan dute Informatikako txoko honetan aurkitatuko lankide eta lagunek.

Maite. Zuzendari eta laguna. Ezin nezakeen eskerren atalari ekin zurekin hasi gabe. Mila esker urte guzti hauetan lagundu eta babestu nauzun aldi guztiengatik. Zu gabe ez nintzateke gaur tesi-lan hau aurkezten egongo. Eskerrik asko bihotz-bihotzez!

IXAkideei... Aurreko batean, "zer da iXakide izatea?" galderari buruz eztabaida alaiean ibili ginen, eta ezin hitzezko definizio bat adostu. Zer da ba iXakide izatea? Niretzat argi dago lana baino gehio dela, izaera bat da. "Tara" bereziak elkartzen diren talde langile eta alaiaren parte izatea, ta euskaraz.

GuarderiXa edo DuquiXa, GuarderiXa+ edo GuarderiXa^ 2, GuarreriXa edo HipsteriXa, PiratiXa edo MaduriXa. Hamaika aiXialdi ta hamaika izen, ta helburua beti berdina: barre, barre eta barre!

Eta nola ez, bulegokideak. Krisi komitea beti laguntzeko prest, bai arazo linguistiko zein informatiko, ekipo ederra osatzen dugu! Azken aldian desitxuratzen ari bada ere... berriak etorriko dira.

FamiliXa, zuekin bai bizi-pozak bizitakoak! Londonen hasi ta, inbidiXa, bazkariak, afariak... Zuekin bizitako momentuetaz gogoratzean irribarretxoari ezin izaten diot eutsi :-) Berrartu beharko ditugu, ezta?

Gure aditu taldeari, hizkuntzalari zein mediku. Zuen erreferentzia eta ezagutza nirekin partekatzeagatik, eta beti laguntzeko prestutasuna erakusteagatik. Gure lanaren motibazio etengabea izan zarete.

Bilboko lankideei, irakaskuntzan emandako lehenengo urratsak horren errazak eta atseginak egiteagatik. Tesiaren azken txanparekin elkartu izanagatik, emandako babesagatik, tesia garaiz bukatzean eragin zuzena izan baituzue.

Sydneyn egindako egonaldia horren berezia egin zenuten guztiei. Bereziki Jon, Wendy eta Gorkari. Asko ikasi nuen zuei esker, eta munduko beste puntan egon arren, familiartean nengoela sentiarazteagatik.

Kuadrila. Urte hauetan guztietan hurbiletik urrunera, eta hurbilera berriz. Azken txanpa honetan, zuen hurbiltasuna aurrera egiteko indarra bilakatu delako.

Ta "Donostiko kuadrilari", ezin hitzez adierazi zer izan zareten ibilbide honetan guztian niretzat. Etapa berria hasi nuen zuekin, eta etapak luze iraun dezala!

Pixukideak, Donosti nire etxe berria egiteagatik. Egun txarretan etxera heltzean hor egoteagatik, eta baita onetan ere! Pixuan gustura egoteak lanean eragin zuzena izan duelako.

Ta Donostiarrei ere, jakina! Gasteiztarra izaten jarraituko badut ere, Donostia nire bihotzean sartzeagatik. Asko zarete Donostin jarraitzeko arrazoiak egunero erakusten dizkidazuenak, bai ardotxo ederrekin, bai "koplajurik gabe" Kantuari abordatzen, edota beste hamaika ekintzekin.

Etxekoak. Zuena bai babesa. Bizitzako momentu orotan hor egon zarete, gomendioak emateko prest, edo entzuteko bakarrik. Unerik latzenetan ere, indarrak bildu eta nirekin egoteagatik.

Urte hauetan guztietan, lagundu edota entzun nauzuen guztiei. Ez zarete gutxi, eta zerrendatzen hasiz gero, nire zuzendariaren tesia baino luzeagoa aterako da nirea. Eskerrik asko guztiei. Nire zalantzaz beteriko uneetan argia erakutsi didazuenoi, saturazioan saturazioz kaña bat hartzera eraman nauzunoi, eta azken txanpa gogor honetan burutik tesia kendu didazuenoi.

Eta bereziki eskerrak, eskerrak bukatu dela! (Ezeiza, 2002)

Esker instituzionalak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, ikerketalan hau egiteko emandako ikertzaileak prestatzeko bekarengatik (BFI-2011-389).

Laburpena

Testuen prozesamendu automatikoan hizkuntza-baliabideak ezinbestekoak dira, hala nola, datu-base lexikalak edo corpusak. Testu espezializatuetara mugatzen garenean aldiz, baliabide terminologikoek berebiziko garrantzia hartzen dute, eta osasun-zientzien domeinua ez da salbuespena.

Tesi-lan honetan, osasun-zientzien domeinuan euskarak duen lehentasunezko behar bati heldu diogu, eta terminoak automatikoki euskaratzeko sistemak garatu eta ebaluatu ditugu. Horretarako, SNOMED CT, terminologia kliniko zabala barnebiltzen duen ontologia, hartu dugu abiapuntutzat, eta EuSnomed deritzon sistema garatu dugu horren euskaratzea kudeatzeko.

EuSnomedek lau urratseko algoritmoa inplementatzen du terminoen euskarazko ordainak lortzeko:

- Lehenengo urratsak baliabide lexikalak erabiltzen ditu SNOMED CTren terminoei euskarazko ordainak zuzenean esleitzeko. Besteak beste, Euskalterm banku terminologikoa, Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa, Giza Anatomiako Atlasa eta Erizaintzako hiztegiak erabili ditugu.

- Bigarren urratserako, ingelesezko termino neoklasikoak euskaratzeko NeoTerm sistema garatu dugu. Sistema horrek, afixu neoklasikoen baliokidetzak eta transliterazio erregelak erabiltzen ditu euskarazko ordainak sortzeko.

- Hirugarrenerako, ingelesezko termino konplexuak euskaratzen dituen

KabiTerm sistema garatu dugu. KabiTermek termino konplexuetan agertzen diren habiaratutako terminoen egiturak erabiltzen ditu euskarazko egiturak sortzeko, eta horrela termino konplexuak osatzeko.

- Azken urratsean, erregeletan oinarritzen den Matxin itzultzaile automatikoa osasun-zientzien domeinura egokitu dugu, MatxinMed sortuz. Horretarako Matxin domeinura egokitzeko prestatu dugu, eta besteak beste, hiztegia zabaldu diogu osasun-zientzietako testuak itzuli ahal izateko.

Garatutako lau urratsak ebaluatuak izan dira metodo ezberdinak erabiliz. Alde batetik, aditu talde txiki batekin egin dugu lehenengo bi urratsen ebaluazioa, eta bestetik, osasun-zientzietako euskal komunitateari esker egin dugun Medbaluatoia kanpainaren baitan azkeneko bi urratsetako sistemen ebaluazioa egin da. Bereziki NeoTermen eta KabiTermen emaitzak izan dira azpimarragarriak, metodo erabat automatikoak erabiliz, doitasun altuko euskarazko ordainak sortzen baitituzte. EuSnomedek, algoritmoaren bitartez sortutako terminoak biltegiratzen eta kudeatzen ditu ere.

Sortutako terminologiaren balioa erakusteko bi aplikazio garatu ditugu: XuxenMed zuzentzaile ortografikoa eta osasun-txostenak euskaraz idazteko laguntza-prototipoa. Xuxen zuzentzaile ortografikoari hiztegia zabaldu diogu osasun-zientzietako terminoak ezagutu ditzan, oker faltsuak ekidinez. Osasun-txostenak euskaraz idazteko laguntza-prototipoari dagokionez, osasun-langileen lana errazte aldera zaintza klinikorako informazioa kudeatzen duen sistema bat sortu dugu, zeinak aurrez definitutako edukia erakusten duen eta idatzitako terminoak ezagutu eta itzultzeko gai den.

"Nazioarteko Doktoregoa" aipamena lortzeko Euskal Herriko Unibertsitatearen eskakizunei jarraituz, tesi-txosten honen ingelesezko bertsio laburtua ondorengo helbide honetan aurki daiteke:

`http://ixa2.si.ehu.eus/~operezdevina001/tesia/thesis_summary.pdf`

Gaien aurkibidea

1 Tesi-lanaren aurkezpen orokorra

1.1 Sarrera eta motibazioa

Euskal Autonomia Erkidegoan euskara eta gaztelania hizkuntzak dira koofizialak baina maiz, osasun-langileekin tratua euskaraz izaten dugun arren, haiek osasun-txostenak gaztelaniaz idazten dituzte. Euskal Herriko gainerako herrialdeetan egoera ez da hobea, eta erderak dira osasun-txostenak idazteko hizkuntza nagusiak. Batzuetan arrazoi desberdinak medio (hezkuntzarako erabilitako hizkuntza, osasunarekin lotutako terminoen ezagutza eza ...), erosoago sentitzen direlako egiten dute hori; besteetan, berriz, euskaraz osasunaren inguruan idazteko gai izan arren, beraien burua erdi behartuta sentitzen dute gaztelaniaz idaztera. Adibidez, Osakidetzak sistema zentralizatua du eta osasun-langile batek idazten duen txostena, gaixoa tratatzen duten gainerako osasun-langileek ere irakur dezakete. Euskaraz idatzi duenaren ondoren datozen irakurleak euskara ulertzeko gai ez badira, gaixoaren segurtasuna kolokan egon daiteke.

Osasun-langileen eta pazienteen arteko harremana gainerako herrialde elebidunetan (edo eleaniztunetan) nolakoa den aztertu nahi izan dugu. Kanadan, elebitasuna ofiziala den zonaldeetan, gaixoaren eta osasun-langilearen arteko harremanerako hizkuntza gaixoak erabakitzen du (Desjardins, 2003) eta osasun-txostenak hizkuntza horretan idazten dira. Belgikan, aldiz, hizkuntza-komunitate bakoitzak bere osasun-zerbitzua kudeatzen duen sistema ez-zentralizatua dauka, eta Bruselaren kasuan, zonalde elebiduna izanik, bi osasun-zerbitzu sistema eskaintzen dira: frantziar komunitatearena eta flan-

diarrena (Gerkens eta Merkur, 2010). Luxenburgon, herrialde txiki bezain anitza izanik, nahiz eta alemana, frantsesa, italiera, ingelesa eta portugesa hizkuntza zabalduak diren, *lingua franca* moduan frantsesa erabiltzen dute (European Observatory on Health Care Systems, 1999).

Gurean aldiz, hizkuntza komunitateak nahastuta daude, eta osasun-zerbitzu bateratua daukagu; *lingua franca* gisa gaztelania erabiltzen dugu Hego Euskal Herrian, baina horrek ez ditu herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzen. Euskara hizkuntza ofiziala izan arren, osasun-langile guztiek ez dute euskara ezagutzen, eta euskaldunak diren osasun-langileek ahozko komunikazioa euskaraz egiten dute eta berehalako itzulpena egin beharra dute oharrak gaztelaniaz idazteko. Nolanahi ere, gaixoak oraingoz ez du sistematikoki bere arreta euskaraz lortzeko aukerarik eta horretarako bidea ireki nahiko genuke.

Osasun-langileen eta euskararen arteko harremana ezagutzeko asmotan, inkesta bat sortu genuen. Euskaraz aritzeko ohiturak eta arazoak ezagutzeko asmoz, 2014 urteko otsailean osasun alorreko 45 langileri galdeketa bat pasatu genien honakoen inguruan: lan-harremanetan egiten duten euskararen erabilera ezagutu nahi genuen eta, osasun txostenei dagokienez, txostenak edozein hizkuntzatan idazten dituztenean zein zailtasun topatzen dituzten ezagutu nahi genuen; eta txostenak euskaraz idazteko aukera izanez gero, tresnak zein behar ase beharko lituzkeen (ortografia-zuzentzailea, osasun-arloko terminologia euskaraz, txantiloiak etab.) zerrendatu nahi genuen.

Galdeketaren emaitzetatik ateratako ondorioak zerrendatuko ditugu jarraian. Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, 41 osasun-langilek gaixoekin komunikazioa euskaraz egiten dute (beste 4ek ez dute erabiltzen) baina 5ek soilik idazten dituzte txostenak euskaraz. Galdetegian, osasun-txosten bat euskaraz idaztera gonbidatu genituen inkestatuak eta honako zailtasunak aurkitu zituzten: euskarazko terminologiaren falta (45etik 32 pertsonak), eredu falta (24 pertsonak) eta ohitura falta (15 pertsonak). Euskaraz idazteko beharrezkoak iruditzen zaizkien baliabideen artean galdetuta, lehentasun handiena eman zieten euskaraz osasun-zientzietako terminologia bateratu eta osatu bati (45etik 39 pertsonak), medikuntzara egokitutako ortografia-zuzentzaile bati (30 pertsonak) eta idazketarako eredu edo txantiloiak izateari (25 pertsonak). Galdetutakoen % 89 prest agertu zen tresna sortuko balitz erabiltzeko; gainerakoek, berriz, bere zalantzak agertu zituzten.

Beraz, inkestaren emaitzetatik ondoriozta dezakegu osasun-zientzietako terminologia bateratu eta osatu bat euskaraz izatea zein garrantzitsua den, gaixo eta osasun-langileen artean euskarazko harremana normalizatzeko, bai-

ta osasunaren munduan egunerokoan euskararen erabilera sustatzeko ere. Hori izan dugu tesi-proiektu honen motibazio nagusia, *osasun-zientzietako terminologia euskaraz izateko urratsak ematea, osasunaren alorrean euskararen normalizazioan aurrera pauso bat egiteko*.

Osasun-zientzietako kontzeptuak deskribatzeko euskarazko terminoak nahi baditugu, dagoeneko beste hizkuntzetarako sortutako sistema terminologiko bat oinarri hartzea iruditu zaigu egokiena. Sistema horien errepaso bat egin ondoren (2. kapitulua), *Systematized Nomenclature Of Medicine – Clinical Terms* edo SNOMED CT euskarara ekartzea erabaki dugu. SNOMED CT da ingelesez, espainieraz eta beste hainbat hizkuntzatan, osasun alorreko terminologia jasotzen duen baliabide zabalduena, eta, era berean, orain arte sortu den terminologia eleaniztun osatuentzat hartzen da[1]. Nolabait esateko, hizkuntza eta sistema desberdinen arteko osasun-txostenen adierazpen eta interpretazio automatikoa eta anbiguotasunik gabea ahalbidetuko duen hiztegi normalizatua da, eta hiztegi-sarreren arteko harremanak zehaztuta ditu. Osasun-txostenetan agertzen diren kontzeptuak, deskribapenak eta erlazioak barnebiltzen ditu. Ingelesa lantzeko sortu zen hasieran, eta 300.000 kontzeptu baino gehiago ditu definituak, baita horiek izendatzeko ingelesezko 1.000.000 termino baino gehiago ere.

Hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala, SNOMED CTren indar nagusia estaldura da. Domeinu klinikoan erabiltzen diren kontzeptuak barnebiltzen ditu, eta espezialitate gehienetako terminologia ere jasotzen du. Horretaz gain, kontzeptuen artean harremanak zehazten ditu: alde batetik, egitura hierarkikoa ematen dioten harremanak ditu, eta, beste aldetik, informazio semantikoa gehitzen duten harremanak, hala nola, agente eragilea (*causative-agent*), aurkikuntzaren tokia (*finding site*), etab. SNOMED CTren barruko harremanez gain, gaur egunean beste baliabide lexikal askoren kontzeptuekin parekatu dituzte SNOMED CTren kontzeptuak. Izan ere, *Unified Medical Language System*en (UMLS) metatesauroaren parte da, eta horri esker UMLSren metatesauro horretan dauden gainerako baliabide terminologikoekin parekatuta dago. Parekatze horri esker, SNOMED CT euskaraz izango bagenu, balibaide terminologiko horiek erabiltzen dituzten teknologiak eskura izango genituzke euskararentzat ere.

Tesi-lan honetan, SNOMED CTren euskarazko bertsioa automatikoki sortzeko algoritmo bat diseinatu eta inplementatu dugu. Algoritmo horrek lau

[1]http://www.snomed.org/snomed-ct/what-is-snomed-ct (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

urrats ditu: i) dagoeneko euskararentzat eskuragarri dauden baliabide lexikal elebidunak (edo eleaniztunak) SNOMED CTren terminoekin parekatzen ditugu, ii) hitzen morfosemantika edo lexema-osaera eta transliterazio-erregela batzuk erabiliz, euskarazko termino neoklasikoak ematen ditugu, NeoTerm sistemaren bidez; terminoen luzera handitzen doan heinean, iii) termino batzuetan beste termino batzuk habiaratuak daudela baliatu dugu euskaratzepatroi batzuk definitzeko KabiTerm tresnan, eta azkenik iv) erregeletan oinarritutako Matxin itzultzaile automatikoa egokitu dugu, MatxinMed sortuz. Horretaz gain, egindako lana borobiltzeko, Xuxen zuzentzaile ortografikoa egokitu dugu osasun-zientzietarako (XuxenMed), eta osasun-txosten elebidunak lortzeko prototipo bat garatu dugu. Tesi-lanean egindako lan horiek zein kapitulutan deskribatu ditugun azalduko dugu 1.4 atalean.

1.2 Lanaren kokapena

Tesi-lan hau Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko IXA taldean sortu da. Taldeak hogeita bederatzi urte inguru daramatza hizkuntzaren tratamendu automatikoa egiten, eta urte horietan batez ere euskara landu dugu. Denbora-tarte horretan, hizkuntzalarien eta informatikarien elkarlanari esker, euskararako sortutako baliabideak eta tresnak[2] ugariak izan dira. Hala nola, *Euskararen Datu-Base Lexikala* (EDBL) (Aldezabal *et al.*, 2001), MORFEUS analizatzaile morfologikoa (Aduriz *et al.*, 1998), hainbat analizatzaile sintaktiko, corpusak, hiztegi elektronikoak, itzultzaile automatikoak, sare semantikoa, eta abar.

Itzulpen automatikoen iker-lerroa IXA taldearen lerro estrategikoetako bat izan da 1988an sortu zenetik. Itzulpen automatikoa ez da ataza erraza, eta horretarako taldeak oinarrizko baliabideak eta tresnak sortzeko estrategia definitu zuen (Sarasola, 2000). Itzultzaile automatikoei dagokienez, esperientzia handia daukan taldea da: Matxin deituriko erregeletan oinarritutako itzultzaile bat garatu du, testuen espainiera-euskara eta ingelesa-euskara itzulpenak egiten dituena (Mayor *et al.*, 2011), baita EuSMT itzultzaile estatistikoa (Labaka, 2010) eta SMatxinT ere, erregeletan oinarritutako metodoak eta metodo estatistikoak erabiltzen dituen itzultzaile hibridoa (Labaka *et al.*, 2014).

[2]Informazio zabalagoa http://ixa.si.ehu.eus web-orrian (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

IXA taldean, terminologiaren lanketan, erregistro akademikoan sortzen diren terminoak izan dira ikergai nagusia azken urteetan. EHUko Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programan parte hartuz, komunikazio espezializatuan erabiltzen diren terminoak lantzen ari dira unibertsitateko jarduera akademikoetan erabiltzen diren testuetatik abiatuta, (San Martin, 2013), baita jarduera akademiko horretan sortutako corpusak ere (Zabala *et al.*, 2008).

Ikerketa-lerro horiek guztiak, tesi-lan honetan lagungarriak izan dira, eta gure sistemen garapenean eragin zuzena izan dute.

1.3 Helburuak

Tesi-lan honen helburu nagusia *osasun-zientzien domeinuko testuak automatikoki prozesatzeko euskarazko baliabideak sortzea* da. Motibazioan ikusi dugun bezala, testu espezializatuen prozesamenduan oinarrizko baliabidea terminologia da. Horrenbestez, tesi-lan honen eginkizun nagusia izango da euskarazko terminologia zabal eta bateratua lortzea, teknika automatikoak erabiliz. Hala ere, helburua ez da bakarra, eta jarraian zeharkako helburuak zerrendatuko ditugu.

- **SNOMED CT sakonki ezagutzea**:

  SNOMED CT ontologia erraldoiaren terminologia euskaraz emateko hautua egin dugu, eta, horrenbestez, berau sakonean ezagutzea ezinbestekoa zaigu, eskaintzen dituen abantailak aprobetxatzeko, eta, jakina, euskaratzea diseinatzeko.

- **Dagoeneko euskaraz osasunaren alorrean dauden baliabide lexikalak ezagutzea eta bateratzea**:

  Osasun-zientzien arloan, beste hainbat arlotan bezala, hiztegi espezializatu asko daude eskura, hala nola Euskalterm, Zientzia eta Teknologia hiztegia, etab. Osasun-langileen kezketako bat terminologia bateratuaren falta da, hiztegi ezberdinak izatean erreferentziazko terminologia nahasgarria baita. SNOMED CTren euskaratzeari ekiteko, eskuragarri dauden baliabide horiek guztiak berrerabili nahi ditugu, eta guztien ordainak bateratu nahi ditugu.

- **Osasun-alorreko terminoak automatikoki euskaratzeko sistemak garatzea**:

  Terminoen konplexutasunaren arabera egin nahi dugu euskaratzea, hau da, hitz bakarrekoak euskaratzen hasi, eta hitz anitzekoetan dagoeneko euskaratutakoa erabili. Horrela, hiru sistema nagusi garatuko ditugu:

  - **Termino neoklasikoak euskaratzeko sistema bat garatzea**:

    Termino neoklasikoak, jatorri grekoa edo latindarra duten morfemez osatuta dauden terminoak dira, adibidez, *hipogluzemia* edo *fotodermatitis*. Horien izaera ezagututa (ez dira apenas aldatzen hizkuntza batetik bestera), horiek euskaraz emateko sistema bat garatu nahi dugu.

  - **Termino konplexuen izaera ezagutzea, eta horien euskaratzerako sistema bat garatzea**:

    SNOMED CTn dauden hitz bat baino gehiagoko terminoak (termino konplexuak) euskaratzeko sistema bat garatu nahi dugu, Itzultzaile Automatikoetatik haratago, baliabide lexikalak eta sortutako termino neoklasikoak erabiltzea helburu duena. Euskaratzeko egiturak aztertzeko, analizatzaile bat sortuko dugu, SNOMED CTren terminoak aztertuko dituena.

  - **Itzultzaile automatiko bat osasun-zientzien domeinura egokitzea**:

    Jadanik garatutako itzultzaile automatiko bat osasun-zientzien domeinura egokitu nahi dugu, aurreko sistemek sortutako terminoak eta baliabide lexikaletatik jasotakoekin aberastuta. Horrela, itzultzaile automatikoak terminoak euskaratzean baliagarriak ote diren aztertu nahi dugu.

- **SNOMED CTren euskaratzea kudeatuko duen sistema bat garatzea**:

  SNOMED CTren eduki terminologikoa oso handia da, eta euskaratzeko beharrezko informazioa biltegiratzeaz eta euskaratze-prozesuaz arduratuko den sistema bat garatuko dugu.

- **Osasun-zientzietako euskal komunitatea euskaratzean inplikatzea, ebaluazioan parte hartuaz**:

  Tesi-lan honetan osasun-zientzietako euskal komunitatea inplikatu nahi dugu, eta horretarako gure sistemak ebaluatzeko dinamika bat martxan jarriko dugu, jendearen aktibazioa bilatzeko.

- **Osasun-txostenak euskaraz idazten laguntzeko tresnak prestatzea**:

  Osasungintzako langileei egindako inkestatik ondorioztatu bezala, osasun-txostenak euskaraz idazteko zailtasunak ez dira gutxi. Horregatik, euskarazko idazketa xamurragoa izan dadin, idazketarako laguntzak garatu nahi ditugu aplikazio informatikoen bidez. Besteak beste, osasun-zientzietarako zuzentzaile ortografiko bat egokitu nahi dugu, eta idazketan lagunduko duen prototipo bat diseinatu eta garatu nahi dugu.

1.4 Tesi-txostenaren eskema

Tesi-txostena zortzi kapitulutan banatu dugu. Kapitulu bakoitzean landutako gaiak deskribatuko ditugu labur-labur hurrengo lerroetan.

- 1. kapitulua – Tesi-lanaren aurkezpen orokorra:

  Lehenengo kapituluan, tesi-lan honetan aztertu dugun gaiaren aurkezpen orokorra egin dugu. Horretarako, izandako motibazioa eta izan ditugun helburuak azaldu ditugu. Bukatzeko, tesi-lan honen inguruan argitaratutako artikuluak zerrendatu ditugu.

- 2. kapitulua – Kokapena eta aurrekariak:

  Hasteko, osasun-zientzietako terminologiaren ezaugarriak ikusiko ditugu, eta terminoen sorkuntza automatikoan erabili diren zenbait hurbilpen aurkeztuko ditugu. Horren ostean, gaur egunean gehien erabiltzen diren osasun-zientzietako baliabide terminologikoak aurkeztuko ditugu. Bukatzeko, beste hizkuntzetan egin diren SNOMED CTren itzulpen-prozesuei gainbegiratu bat emango diegu.

- 3. kapitulua – SNOMED CTren analisia:

  Euskaratzea diseinatu ahal izateko, SNOMED CTren sakoneko analisi kuantitatiboa egin dugu. Ingelesezko bertsio internazionala aztertu dugu, eta honen egitura hierarkikoari, aberastasun terminologikoari (sinonimo kopuruari) eta terminoen token kopuruari erreparatu diogu. Bukatzeko, espainierazko bertsioaren gabezien berri emango dugu.

- 4. kapitulua – EuSnomeden diseinua:

  SNOMED CTren eduki terminologikoa ingelesetik abiatuta euskaratzeko garatu dugun EuSnomed aplikazioaren diseinua aurkeztuko dugu. Aplikazio horretarako diseinatu dugun algoritmoa azalduko dugu, algoritmoak dituen lau urrats nagusiekin batera. Horretaz gain, EuSnomedek informazioa biltegiratzeko egokitu dugun formatua aurkeztu dugu.

- 5. kapitulua – Termino sinpleak: baliabide lexikalak eta termino neoklasikoak:

  Termino sinpleak euskaratzeko garatu ditugun euskaratze-algoritmoaren lehenengo bi urratsak aurkeztuko ditugu. Lehenengo urratsak eskuragarri dauden euskararako baliabide lexikal elebidunak erabiltzen ditu. Bigarren urratserako, aldiz, termino neoklasikoak euskaratzeko sistema bat garatu dugu (NeoTerm), zeina termino horien afixuen baliokidetzaz eta transliterazio-erregelez baliatzen den ingelesetik euskarazko terminoak sortzeko.

- 6. kapitulua – Termino konplexuak: termino habiaratuak eta itzultzaile automatikoak:

  Ingelesezko termino konplexuak euskaratzeko, euskaratze-algoritmoaren azkeneko bi urratsei helduko diegu. Alde batetik, termino habiaratuetan[3] oinarritzen den sistema bat garatu dugu KabiTerm deiturikoa. Bestetik, Matxin itzultzaile automatikoa osasun-zientzien domeinura egokitu dugu. Bi sistemak ebaluatzeko, osasungintzako euskal komunitatea inplikatzen duen ebaluazioa egin dugu (Medbaluatoia).

[3]Termino konplexu baten barnean beste termino batzuk agertzen direnean, horiei termino habiaratu deritzegu.

- 7. kapitulua – Zuzentzaile ortografikoa eta osasun-txostenak euskaraz idazteko prototipoa:

  Batetik, osasun-zientzietarako egokitu dugun zuzentzaile ortografikoa aurkeztuko dugu. Bestetik, osasun-txostenak euskaraz idazteko garatu dugun lehen prototipoaren berri emango dugu, honekin osasun-txosten elebidunak lortzeko bidea ireki dugularik.

- 8. kapitulua – Ondorioak eta etorkizuneko lanak:

  Lehenik, aurreko kapituluetan egindako lanetik ateratako ondorioak eta tesi-lan honen ekarpenak zeintzuk diren laburbilduko dugu. Azkenik, eskuartean gelditu zaizkigun etorkizunean egiteko lanak zehaztuko ditugu.

Aurkeztutako kapituluez gain, beste honako eranskin hauek aurki daitezke tesi-txosten honetan:

- A eranskina – TBX formatuaren adibideak.
- B eranskina – Termino neoklasikoen sorkuntzarako erregelak.
- C eranskina – Termino habiaratuen sorkuntzarako erregelak.

1.5 Tesi honen garapenetik atera diren argitalpenak

Tesi-lan honen garapenean, hainbat artikulu argitaratu ditugu. Jarraian, argitalpen horiek zerrendatzen ditugu, kapituluen arabera sailkatuta:

- 4. kapitulua – EuSnomeden diseinua:
  - Perez-de-Viñaspre O., eta Oronoz M. **Translating SNOMED CT Terminology into a Minor Language**. *Proceedings of the 5th International Workshop on Health Text Mining and Information Analysis (Louhi)*, 38–45. Association for Computational Linguistics. Gothenburg, Suedia, 2014.

  - Perez-de-Viñaspre O., eta Oronoz M. **An XML Based TBX Framework to Represent Multilingual SNOMED CT for Translation**. *12th Mexican International Conference on Artificial Intelligence, MICAI 2013*. Lecture Notes in Artificial Intelligence, 8265 lib., 419–429. Springer, ISBN 978-3-642-45113-3. Mexiko DF, Mexiko, 2013.

- 5. kapitulua – Termino sinpleak: baliabide lexikalak eta termino neoklasikoak:

  - Perez-de-Viñaspre O., Oronoz M., Agirrezabal M., eta Lersundi M. **A finite state approach to translate SNOMED CT terms into Basque using medical prefixes and suffixes**. *Proceedings of the 11th International Conference on Finite State Methods and Natural Language Processing*, 99–103. St Andrews, Eskozia, 2013.
  - Perez-de-Viñaspre O., eta Oronoz M. **SNOMED CT in a language isolate: an algorithm for a semiautomatic translation**. *BMC Medical Informatics and Decision Making*, 15 lib., 2 zenb., S5. BioMed Central. 2015.

- 6. kapitulua – Termino konplexuak: termino habiaratuak eta itzultzaile automatikoak:

  - Perez-de-Viñaspre O., eta Oronoz M. **Osasun-zientzietako terminologiaren euskaratze automatikoaren ebaluazioa, osasungintzako euskal komunitatea inplikatuz**. *II. IkerGazte, Nazioarteko Ikerketa Euskaraz*. Udako Euskal Unibertsitatea. Durango, Euskal Herria, 2017.

- 7. kapitulua – Zuzentzaile ortografikoak eta osasun-txostenak euskaraz idazteko prototipoa:

  - Perez-de-Viñaspre O., Oronoz M., eta Patrick J. **Osasun-txosten elebidunak posible ote?**. *I. IkerGazte, Nazioarteko Ikerketa Euskaraz*, 730–738. Udako Euskal Unibertsitatea, ISBN 978-84-8438-539-4. Durango, Euskal Herria, 2015. IkerGazte Sari Berezia.

Beste honek ere, kapitulu zehatz batekin lotura ez badu ere, tesiarekin zerikusia du:

– Perez-de-Viñaspre O., eta Labaka G. **IXA Biomedical Translation System at WMT16 Biomedical Translation Task**. *Proceedings of the First Conference on Machine Translation (WMT16)*, 477–482. Association for Computational Linguistics. Berlin, Alemania, 2016

2

Kokapena eta aurrekariak

Tesia kokatzea du helburu kapitulu honek, baita bertan egindako lanen aurrekariak azaltzea ere. Osasun-zientzietako terminologiaren, honen sorkuntzarako ikuspegien, sorkuntza automatikoaren eta dagoeneko inplementatuta dauden sistema terminologikoen berrikuspen bat egingo dugu.

Aurrera jarraitu aurretik, tesi-lan honetan "kontzeptu" eta "termino" hitzak maiz azalduko zaizkigunez, komenigarria da hauek definitzea:

- kontzeptua: "ezagutzaren unitate bat, ezaugarrien konbinaketa bakarra" (ISO 1087-1:2000)
- terminoa: "kontzeptu orokor baten hitzezko izendatzea domeinu zehatz batean" (ISO 1087-1:2000)

2.1 Osasun-zientzietako terminologia

Osasun-zientzien domeinuan, eta bereziki medikuntzarenean, kontzeptu berriei izena emateko beharra etengabekoa da. Horretan eragin handia daukate medikuntzako aurrerakuntza azkarrek eta medikuntzan sortzen diren egoera berriek. Egoera honetan, eta kontuan izanik gaur egun ikerketan ingelesa dela hizkuntza nagusia, kontzeptu berri horiei lehen aldiz ingelesez eman ohi zaie izena (ten Hacken eta Panocová, 2015).

Kontzeptuen lehen izendatzerako, hitz-sorkuntza (*word formation*) edo terminologiara ekarrita, termino-sorkuntza deritzon erregela-sistema baliatzen da. Erregela-sistema horren bidez, termino berriak sortzen dira jadanik

existitzen diren elementu lexikalak baliatuz. Termino-sorkuntzarako erabiltzen diren metodo erabilienak adiera-zabalkuntza (*sense extension*) eta mailegatzea (*borrowing*) dira (ten Hacken eta Panocová, 2015).

Adiera-zabalkuntzaren adibide argia aurkitu dezakegu ingelesezko *cell* terminoan. Jatorrian monasterioko edo kartzelako gela txiki bat izendatzeko erabiltzen zen (latinetik *cellulae*, "lekugune txikia") eta metafora erabiliz, hitz horri adiera berri bat esleitu zioten bizidun guztien egitura-unitate mikroskopikoa izendatzeko.

Maileguak ere asko erabili izan dira medikuntzako termino-sorkuntzan. Historikoki, latinera zen nazioarteko komunikazioan erabiltzen zen hizkuntza. Gaur egunean, aldiz, ingelesa bilakatu da komunikazio internazionaletako hizkuntza eta latinetik eta grekeratik hartutako maileguak erabili izan dira ingelesezko kontzeptuak izendatzeko. Termino neoklasiko horiek Europako hizkuntzetarako abantaila izan dira terminoen ulergarritasunari begira, guztientzat baitira maila antzekoan ulergarriak.

Aldakortasunari dagokionez, terminoa, hizkuntzaren beste edozein elementu moduan, aldakortasunarekin lotuta dago (Cabré, 1999). Gainera, terminoek denboran eboluzio bat izan dezakete, deskribatzen duten kontzeptuaren inguruan informazio gehiago lortzen den heinean. Adibidez, kromosoma gehigarri baten agerpenak "Down-en sindromea" sortzen zuela jakin zenean, "trisomia 21" terminoa agertu zen kontzeptuaren kausalitatean arreta ipintzeko (Westman, 2006). Gaur egunean bi terminoak ("Down sindromea" eta "trisomia 21") erabiltzen dira sinonimo gisa gaixotasuna izendatzeko. Bestalde, erregistroarekin zerikusia duen sinonimia ere oso ohikoa da osasun-alorrean. León-Araúz-ek (2015) adierazten duenez, mediku-gaixo elkarrizketa batean, medikuak erabiltzen dituen terminoak ahalik eta ulergarrienak izango dira, eta aldiz, konferentzia batean erabiltzen dituen terminoak estandarizatuak izango dira gehienetan.

Terminoen aldakortasunaz areago, ikerketak aurrera egiten duen heinean, kontzeptu berrien izendatzeko beharra dago, eta horren ondorioz, baliabide terminologikoak etengabean eguneratu behar dira (Bollegala *et al.*, 2015).

Osasunaren alorrean egiten den ikerketan hizkuntza nagusia ingelesa bada ere, termino berriak gainerako hizkuntzetara eramateko presioa handia da. Izan ere, osasungintzan egiten den komunikazioa ez da ikerlarien mailan bakarrik gelditzen, eta paziente zein familiekin hitz egiterako garaian gainerako hizkuntzetan kontzeptuak izendatzeko beharra sortzen da (ten Hacken eta Panocová, 2015).

Euskararen kasuan, normalizazio bidean dagoen hizkuntza bat izanik, alor

askotako terminologia erabat garatu gabe dago. Hori da osasun-zientzien domeinuaren kasua. Gaur egunean, ez dugu terminologia bateratu eta kohesionatu bat, eta hizkuntza minorizatua den heinean, terminologia-plangintza bat behar du, testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuko duena (Cabré, 2003).

Dagoeneko lan handia egin da osasun-zientzien domeinuko terminologia euskaraz lantzeko euskaratzeko eta horren erakusle da Zabala *et al.*-ek (2016) egindako ekarpena. Unibertsitateko osasun-zientzietako ikasleak euskararen normalizazio-prozesuaren agente aktibo bilakatzeko formakuntzaz dihardute lan horretan, hori bideratzeko "Komunikazioa euskaraz: osasun-arloa" ikasgaia baliatuta bidez. Ez da lan isolatu bat, eta osasun-zientzietan euskararen normalizazio prozesuan oso lagungarriak diren baliabide lexikalen sorkuntza etengabekoa da, hala nola, berriki argitaratu den Anatomiako Atlasaren euskarazko argitalpena (Zabala *et al.*, 2012) edo Euskal Herriko Unibertsitatean abian den Terminologia Sareak Ehunduz programa[1], non unibertsitateko jarduera akademikoetan erabiltzen diren testuetatik abiatuta, komunikazio espezializatuan erabiltzen den terminologia eta fraseologia erreala ikusgarri egin nahi diren.

2.2 Terminoen sorkuntza automatikoa

Terminoen sorkuntza automatikoaz ari garenean, jadanik izendapenen bat duen kontzeptu bati termino berriak esleitzeaz ari gara. Hau da, kontzeptu bat izendatzeko aurrekariak izanda (eta horietan oinarrituta), ordainak sortzea. Kontuan izan behar dugu terminoak ez direla itzultzen, baizik eta beste hizkuntzetako ordain egokiak sortzen dira kontzeptu bera izendatzeko, eta kasu honetan, prozesu horretaz ari gara.

Adituek termino-sorkuntza honi bigarren mailako termino-sorkuntza deritzote (Sager, 1997). Izan ere, lehen termino-sorkuntza, kontzeptu bat lehenengo aldiz izendatzen denean egiten da, eta gainerako kasuetan, bigarren mailako termino-sorkuntza egiten da. Bigarren mailako termino-sorkuntzan beraz, kontzeptua izendatzeko eredu bat badago jadanik, eta horrela, proposamenak egin daitezke modu kontrolatuan (Müller, 2015). Euskararen eta osasun-zientzien kasuan, terminologiaren sorkuntza ia osoa bigarren mailakoa izaten da, aurretiaz kontzeptua izendatzeko terminoak egoten baitira

[1]https://www.ehu.eus/ehusfera/tse/ (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

euskaran eragina duten ingelera zein espainiera bezalako hizkuntza nagusietan (Zabala *et al.*, 2016).

Terminoak hizkuntza berri batera ekartzea ez da lan erraza izaten. Izan ere, ataza horretarako prest dauden aditu elebidunak aurkitzea ez da lan erraza, eta biomedikuntzaren domeinua horren zabala izatean, are zailagoa da nahikoa aditu aurkitzea azpidomeinu guztien terminologia eskuz sortzeko (Bollegala *et al.*, 2015). Horrenbestez, teknika automatikoak erabiltzeak lana bideragarriagoa egiten du, automatikoki terminoen ordainak lor daitezkeelako, eta adituen lana berrikuspenera mugatzen delako.

Terminologia automatikoki sortzeko garaian, bi metodo multzo bereizten dituzte Langlais *et al.* (2008) lanean.

Alde batetik metodo sortzaileak (ingelesez *generational*) daude, non pertsonen ezagutzan oinarrituta edo corpusean oinarrituta termino berrien edo ezezagunen ordainak lortzen dituzten. Adibidez, Schulz *et al.*-ek (2004) portugesez idatzitako medikuntzako terminoetatik espainierakoak sortzeko erregelak definitu zituzten eta Claveau eta Zweigenbaum (2005) lanean, aldiz, ikasketa automatikoko teknikak erabiliz ingelesetik abiatuta frantsesezko terminoak (eta alderantziz) sortzeko erregelak ikasi zituzten. Langlais *et al.* (2008) lanean, lexikoi elebidun bat erabiltzen dute ikasketa analogikoa[2] (Lepage, 1998; Stroppa eta Yvon, 2005) erabiliz eredu bat sortzeko. Navigli *et al.* (2003) lanean, WordNet-ek (Miller, 1995) eta beraiek garatutako OntoLearn ontologiak emandako kontzeptuen arteko harremanak baliatuz, termino konplexuen (hitz anitzeko terminoen) ordainak lortzen dituzte. OntoLearn ontologia corpus espezializatu elebakarrak erabiliz sortzen dute, eta, Hizkuntzaren Prozesamenduko (HP) teknikak eta teknika estatistikoak erabiliz, terminoen desanbiguazioa eta kontzeptuen arteko harremanak eraikitzen dituzte.

Bestetik, metodo ez-sortzaileak daude, eta horiek corpusetako hitzen itzulpenen identifikazioan oinarritzen dira. Metodo horiek aldiz, mugatuak dira, corpusean agertzen diren termino-ordain pareak baino ezin baitituzte sortu. Mota horretako metodo gehienek corpus paraleloak erabiltzen dituzte terminoen ordainak identifikatzeko. Adibidez, Deléger *et al.*-ek 2006ko lanean corpus paraleloetako hitzen lerrokatzea erabiltzen dute terminologia eleaniztunak zabaltzeko, eta 2009ko lanean medikuntzako terminologia sortzeko (ingelesetik). 2010eko lanean bi geruzetako termino-sorkuntzarako metodoa garatu dute, MedlinePlus-eko (Miller *et al.*, 2000) terminologia frantsesera

[2]Proportzio analogiko bat lau elementuen arteko harremana da [x : y = z : t], non x-ren eta y-ren arteko harremana, z-ren eta t-ren artekoaren berdina den

itzultzeko. Lehenengo hurbilpenean, ezagutzan oinarritzen dira UMLSren metatesauroko informazio kontzeptuala erabiliz (metodo sortzailea). Bigarren hurbilpenean, corpusean oinarritutakoan, aurreko lanean azaldutako metodoa erabiltzen du (Deléger *et al.*, 2009). Bi hurbilpenak konbinatuz, sistemaren estaldura hobetzea lortzen dute (0.51 bien artean), sistemaren doitasuna 0.70 inguru mantenduz.

Azaldu dugun bezala, metodo ez-sortzailearen kalitatea corpusen tamainarekin zuzenki lotuta dago, corpusean aurkitzen ez diren terminoei ezin baitizkiete ordainak eman. Corpus paralelo espezializatu handiak lortzea aldiz, ez da lan erraza izaten. Hori dela eta, corpus konparagarriak erabiltzen dituzten lanak ere argitaratu dira, baina ataza zailtzeaz gain, erroreak sortzeko aukera areagotzen dute. Fung eta Yee-ek (1998) hitzen itzulpenak lortzeko, Informazioaren Berreskurapeneko (*Information Retrival*) teknikak erabiltzen dituzte, itzuli beharreko hitzen inguruko hitzen maiztasunenak baliatuz. Delpech-ek eta lagunek, corpus konparagarriak erabiltzen dituzte lexikoi elebidunak sortzeko (Delpech *et al.*, 2012). Hitzen konposaketaz baliatzen dira, eta morfema mailako baliokidetzak aurkituz, termino-ordain pareak identifikatzen dituzte.

2.3 Osasun-zientzietako baliabide terminologikoak

Azken hamarkadetan baliabide elektronikoak ikaragarri zabaldu dira, eta bereziki testu elektronikoen gorakada da nabarmentzekoa. Gorakada horri esker, ezagutza ordenagailuen eskura jarri da. Ordenagailuek testuan jasota dagoen ezagutza erabili ahal izateko egin beharreko lana, ordea, ez da berehalakoa. Testuan dagoen ezagutza modu automatikoan kudeatu ahal izateko, baliabide terminologikoak oso erabiliak izan dira (Alani *et al.*, 2003; Savova *et al.*, 2010).

MeSH (*Medical Subject Headings*) hiztegi kontrolatu zabal bat da, osasun- eta biologia-zientzietako aldizkarietako artikuluak eta liburuak indexatzeko erabiltzen dena (Lipscomb, 2000). 25.186 gai-sarrera (ingelesez *subject heading*) barnebiltzen ditu, eta hauentzako definizio edo deskribapen bat, baita beste burukoekiko loturak eta sinonimo zerrenda bat ere.

Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena (GNS) edo ingelesez *International Classification of Diseases and Related Health Problems* Munduko Osasun

Erakundeak (*World Health Organization*) sortutako sailkapen bat da, mundu mailan diagnostikoak sailkatzeko erabiltzen dena. Sailkapen-sistema bat da, eta osasun-txostenetan aurkitzen den informazioa kontuan hartuta, diagnostikoa kodetzeko erabiltzen da. Bere helburu nagusia osasun-txostenak sailkatzea da.

Systematized Nomenclature Of Medicine – Clinical Terms edo SNOMED CT (IHTSDO, 2014) osasungintza klinikoko terminologia eleaniztun zabalduena dela esan daiteke. SNOMED CTk, GNSrekin alderatuta, helburu klinikoak kontuan hartuta, osasun-txostenetan dagoen informazioa jasotzeko helburua dauka. Adibidez, SNOMED CTren bitartez, GNS diagnostiko bat automatikoki lor daiteke (Bowman, 2005). SNOMED CTren indar nagusia bere estaldura da (Elkin *et al.*, 2006), izan ere, medikuntzaren esparruko espezialitate askotako terminologia barnebiltzen du, eta horrekin, osasun-txosten elektronikoetan erabiltzen den terminologia zabala. Gainera, munduko herrialde askotan zabaltzen ari den erreferentziazko terminologia da, eta herrialde bakoitzak bere hizkuntza eta beharretara egokitzen du[3]. Dagoeneko SNOMED CT 50 herrialde baino gehiagotan erabiltzen da[4].

Unified Medical Language System (UMLS) aipatutako terminologia guztiak eta askoz gehiago barnebiltzen dituen baliabide bat da (Bodenreider, 2004). Baliabide terminologiko horien guztien arteko mapaketak eskaintzen ditu eta biomedikuntzako kontzeptuen metatesauro eta ontologia bat osatzen du. Horretaz gain, Hizkuntzaren Prozesamendurako (HP) baliabideak ere eskaintzen ditu, helburua biomedikuntzako terminologia "ulertuko" duten konputagailu-sistemen garapena erraztea baitu. Denera ia 200 baliabide barnebiltzen ditu UMLSko metatesauroak[5].

UMLSn integratuta dagoen terminologiaz gain, badaude beste hainbat baliabide, testuen prozesamenduan erabiliak direnak. *Disease Ontology* datu-basea da horietako bat, eta 8.043 gaixotasunen informazio zabala jasotzen du (Schriml *et al.*, 2012; Osborne *et al.*, 2009). Datu-base honetako kontzeptu bakoitzak SNOMED CTrekin, MeSHekin eta GNSekin lotura espezifikoak jasota dauzka, besteak beste. *Medical Dictionary for Regulatory Activities* edo MedDRA aldiz, hamaika hizkuntzetan eskuragarri dagoen medikuntzako terminologia-hiztegi bat da, autoritate arauemaileek erabiltzen dutena farmaziako arautze-prozesuetan, besteak beste (Brown *et al.*, 1999).

[3]http://www.snomed.org/members/ (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

[4]https://www.snomedinaction.org/ (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

[5]https://www.nlm.nih.gov/research/umls/sourcereleasedocs/index.html (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

Beste ezagutza-base bat *Online Mendelian Inheritance in Man* (OMIM) dugu, zeinak gizakien geneen eta gaixotasun genetikoen ezagutza jasotzen duen (Amberger *et al.*, 2011). MEDIC ere gaixotasunen hiztegi bat da, MeSHen gaixotasunen adar baten moldaketak eta OMIM datu-basearen gaixotasun genetikoak elkartzen dituena (Davis *et al.*, 2012). UMLSren eta SNOMED CTren lizentziak oztopo zirela, *Comparative Toxicogenomics Database* (CTD) proiektuaren baitan, MEDIC sortu zuten eta 2017ko urtarrileko bertsioan 11.000 gaixotasunetik gora ditu.

Ikusi dugun bezala, SNOMED CT erro sendoak dituen biomedikuntzako ontologia da, eta zabalduta dauden beste sailkapen zein ontologiekin lotura estuak ditu. Gainera, azpimarratu dugun moduan, SNOMED CTren estaldura oso zabala da, espezialitate askotako terminologia barnebiltzen duelarik. Gainera, terminologia jasotzeaz gain, kontzeptuen harteko informazioa ere eskaintzen du, ontologia bat baita. Ikusi ditugun baliabide terminologikoen artean SNOMED CT aukeratu dugu oinarri gisa. Horrenbestez, SNOMED CT euskaraz izateak abantaila ugari ekarriko dizkigu, ez bakarrik geroz eta gehiago egonkortzen ari den estandar bat euskaraz ere izango dugulako, baizik eta SNOMED CTrekin lotura duten baliabideak euskaraz erabiltzeko aukera ere izango dugulako.

2.4 SNOMED CTren itzulpenak

Gaur egunean, SNOMED CT AEBetako ingelesez, Erresuma Batuko ingelesez, espainieraz, danieraz eta suedieraz dago eskuragarri, eta frantsesezko, lituanierazko eta beste hainbat hizkuntzetako itzulpenak garatzen ari dira[6]. SNOMED International-en web-orrian zehazten den moduan, SNOMED CTren itzulpen batzuk teknika ezberdinak erabiliz gauzatu dira dagoeneko, eskuzko itzulpenetatik, automatikoetara.

Frantsesaren kasuan, adibidez, frantseserako garatutako baliabide terminologikoak baliatu dute frantsesezko SNOMED CT sortzen laguntzeko (Abdoune *et al.*, 2011). Horretarako, UMLSren metatesauroan integratutako frantsesez dauden lau baliabide terminologiko erabili dituzte (Joubert *et al.*, 2009): SNOMEDen nazioarteko banaketak (SNOMED International), GNS bere 10. bertsioan, MedDRA eta MeSH. Baliabide terminologiko horietatik, termino hobetsiak baino ez dituzte erabili: SNOMED Internationalek 107.900

[6]http://www.snomed.org/snomed-ct/snomed-ct-worldwide/translations-of-snomed-ct (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

termino hobetsi ditu frantsesez, GNS10ek 9.306, MesHek 25.186 eta MedDRAk 18.209. SNOMED CTren CORE (*Clinical Observations Recordings and Encoding*) azpimultzoa frantsesera itzultzea zuten helburu. UMLSren CORE azpimultzoak, *National Library of Medicine*-k (NLM) aztertu dituen erakundeen datu-baseetan gehien erabiltzen diren terminoak (14.000) barnebiltzen ditu[7]. Termino horiek UMLS kontzeptuekin parekatu dira (6.800 kontzeptu), horietatik 5.000 baino gehiago SNOMED CTrenak direlarik. Horretaz gain, Merabti *et al.* (2013) lanean, bi estrategia konbinatu dituzte SNOMED CTren terminologia itzultzeko: kontzeptuetan oinarritutakoa eta lexikoan oinarritutakoa. Kontzeptuetan oinarritutakoan, terminoak kontzeptu mailan parekatzen dituzte, hau da, termino batek metatesauroan duen kokapena erabiltzen da, kokapen hori duen ordaina lortzeko. Lexikoan oinarritutakoak baliabide terminologiko elebidunak erabiltzen ditu parekatzea egiteko, aurreko lanetan egin bezala (Joubert *et al.*, 2009; Abdoune *et al.*, 2011).

SNOMED CTren txinerako bertsio bat sortu dute, laguntza automatikoa eta eskuzko lana konbinatuz egin da (Zhu *et al.*, 2012). Eskuzko lanean laguntzeko, Txinan erreferentziazkoa den MedDic deituriko datu-basea erabili dute. Datu-base horrek 2 milioi hiztegi eta balibide terminologiko barnebiltzen ditu, tartean ingelera-txinera medikuntzako hainbat baliabide terminologiko elebidun daudelarik, hala nola GNS9 eta MeSH. Terminoen sorkuntza-prozesuan, jatorrizko terminoen hitzez hitzeko baliokidetza automatikoa lortu dute MedDic erabilita. Hau da, terminoa osatzen duen hitz bakoitzaren ordaina jaso dute MedDic datu-basetik eta hori izan da itzultzaileei emandako proposamen automatikoa. Proposamen hori oinarri hartuta, itzultzaileek zuzenketa-prozesu bat eginda, terminoaren ordain-proposamen ofiziala egiten dute, eta medikuek berrikusi ostean proposatutako ordaina onartzen da.

SNOMED CTren aitzindaria den SNOMEDen espainierara itzultzeko prozedura txinerarako erabilitakoaren antzekoa izan da (Reynoso *et al.*, 2000). Bertan, ingelesezko terminoak aurreitzuliak izan dira hitzez hitzeko itzulpen automatikoa lortuaz, eta medikuek zein medikuntzako ikasleek berrikusi dituzte itzulpen horiek. Prozesua Newmark-en itzulpenaren lau mailak jarraituz egin dute: lehenengo bi mailak medikuek eta ikasleek egin dituzte (testuko eta erreferentziazko mailak), hirugarrena (kohesioa) itzultzaileek osatutako berrikuspenerako talde batek egin du, eta laugarren maila (natu-

[7] https://www.nlm.nih.gov/research/umls/Snomed/core_subset.html (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

raltasuna) medikuntzako terminologian aditua den mediku talde batek egin du. SNOMEDen itzulpenerako, ontologiaren kontrolerako eta trinkotasunerako bosgarren maila bat gehitu diote Newmark-en proposamenari Reynoso eta lagunek.

Suediarrek, txinerarako eta espainierarako jarraitutako estrategia bera hartu dute (Klein eta Chen, 2009). Dagoeneko eskura dauden hiztegiak erabiltzen dituzte itzulpenean laguntzeko. Jatorrizko terminoa hiztegietan aurkitzen dutenean, ordain hori erabiltzen dute lehen proposamen bezala (gerora berrikusia dena), eta partzialki aurkitzen dutenean, zati horien ordainak erabiltzen dituzte. Erabilitako hiztegien artean GNS10 emankorrena izan dela azpimarratu dute.

Danieraren kasuan, erabat eskuzko itzulpena egin dute eta kudeaketarako, software baten laguntzaz baliatu dira (Petersen, 2011; Andersen *et al.*, 2007). HealthTerm terminologia kudeatzeko sistemaren itzulpen-modulua erabili dute, 4-5 urrats erabiltzen dituen prozesu bat jarraituz[8]. Høy-k (2006)) itzulpenaren prozesu osoa azaltzen du eta kontuan hartzeko irizpideak ere zerrendatzen ditu. Lan horri esker, SNOMED CTren itzulpenetarako gidaliburua argitaratu zuen (Høy, 2010).

Berrikuspen honekin amaitzeko, SNOMED CTn, hizkuntza ezberdinetan egindako itzulpenen laburpena ikus dezakegu 2.1 taulan. Metodo automatikoak erabili dituztenen artean, parentesi artean adierazi ditugu hiztegien erabilera bakarrik automatizatu dituzten hizkuntzak.

Hizkuntza	**Eskuzkoa**	**Itzulpen Automatikoa**
Frantsesa	✓	✓
Txinera	✓	(✓)
Espainiera	✓	(✓)
Suediera	✓	(✓)
Daniera	✓	

2.1 taula – SNOMED CTren itzulpenen laburpena.

Schulz *et al.* (2013) lanean, SNOMED CTren 500 terminoren alemanierazko ordainak konparatu dituzte. 500 termino horien ordainak teknika ezberdinak erabiliz sortu dituzte: i) medikuntzaren domeinuko itzultzaile

[8]http://www.healthterm.com/translation-of-snomed-ct-into-danish/ (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

profesionalek sortatuko ordainak, ii) Google Translate[9] tresnak sortutako ordainak, eta, azkenik, iii) medikuntzako ikasleek sortutako ordainak. Ordain horiek bi adituk (medikuak) ebaluatu zituzten, zuzentasun linguistikoari eta edukiaren zuzentasunari erreparatuz. Konparaketa horren emaitzetan ikus dezakegunez, eskuz sortutako ordainak itzultzaile automatikoak sortutakoak baino hobeak dira, aurreikusten zuten bezala, baina profesionalen eta ikasleen arteko emaitzak berdinak izan dira zuzentasun linguistikoari dagokionez, eta ikasleen ordainak hobeak edukiaren zuzentasunari dagokionez. Lan horretan ondorioztatu zuten moduan, ordainak sortzeko adituak baino alternatiba merkeagoak bideragarriak dira, ikasleak eta itzulpen automatikoko tresnak, hain zuzen ere.

2.5 Laburpena eta ondorioak

Kapitulu honetan tesi-lana kokatu nahi izan dugu, osasun-zientzietako terminologiari eta sorkuntza automatikoari egindako gainbegiratuaren bidez. Gainera, gaur egunean eskuragarri dauden osasun-zientzietako baliabide lexikalak ere aztertu ditugu, eta, bukatzeko, beste herrialde batzuetan SNOMED CT euren hizkuntzetara itzultzeko egindako lanak berrikusi ditugu.

Ingeleserako analizatzailerako (AnaMed_en) Stanford taldearen CoreNLP tresna (Manning *et al.*, 2014) erabili dugu lehenengo moduluan, horretarako Dustin Smith-en Stanford CoreNLP Pythonerako interfazea erabili dugu[1]. Euskararako (AnaMed_eu), berriz, Eustagger (Ezeiza *et al.*, 1998) erabili dugularik. Analizatzaile linguistikoetatik tokenizatzailea eta etiketatzaile morfologikoak erabili ditugu, tokenen lema eta kategoria gramatikala jasotzeko. Informazio horretaz gain, tokenaren posizioa (ingelesez *offset*) eta AnaMed_en kasuan entitate-ezagutzailearen informazioa ere integratu ditugu (6.1 irudian, lehenengo moduluaren irteera).

[1]https://github.com/dasmith/stanford-corenlp-python (2017ko maiatzaren 9an atzitua).



6.1 irudia – AnaMed analizatzailearen arkitektura.

Esan bezala, bigarren moduluan eponimoen identifikazioa gehitu diogu (ikusi 6.1 irudia). Medikuntzan eponimoak oso ohikoak dira, bereziki gaixotasunak eta sindromeak adierazteko. Adibidez, “Down-en sindromea” edo

"Alzheimer-en gaixotasuna" terminoetakoak[2].

Azkenik, analisia osatzeko asmoz, SNOMED CTren terminoen identifikazioa ere gehitu diogu AnaMedi (6.1 irudiko hirugarren modulua).

Analizatzaile linguistikoei ez zaie inolako egokitzapenik egin tesi-proiektu honetan. Beraz, jarraian, lan honetan sortu ditugun moduluak bakarrik deskribatuko ditugu.

Eponimoen ezagutzailea

Leman aldaketarik gabeko eponimoak aurreko adibidean erakutsitako "Downen sindromea" edo "Alzheimer-en gaixotasuna" bezalakoetan daude, non eponimoa bera esplizituki agertzen den, "Down" eta "Alzheimer" kasu honetan. Horietaz gain, badira hainbat termino eponimoetatik eratorriak izan direnak, daltonismoa kasu. Daltonismo terminoa, John Dalton kimikari britainiarren omenez izendatu zen, bera izan baitzen daltonismoa deskribatzen lehena[3]. Hala ere, inplementatu dugun eponimoen ezagutzaileak ez ditu eponimoetatik eratorritako terminoak identifikatzen, daltonismoa kasu, baizik eta eponimo literalak soilik.

Eponimoen ezagutzailea garatzeko orduan, euskararen gramatika izan dugu buruan. Izan ere, pertsona-izena izan, edo toki-izena izan, euskaraz emango zaion trataera deklinabideari dagokionean ezberdina izango da. Eponimoen definizioan ez dugu adostasunik aurkitu eta batzuetan toki-izenei ere erreferentzia egiten diete[4,5]. Adibidez, toki-izenei dagokionean *Stockholm syndrome* Stockholm hirian gertatutako gertakari baten ostean izendatu zen[6], eta horrela, euskarazko ordaina "Stockholmgo sindrome" da, lekuzko genitiboa erabiliz. Pertsona-izenekin aldiz, edutezko genitiboa (posesiboa) da erabiltzen den deklinabidea, "Weber-en proba" terminoaren kasuan, adibidez.

Eponimoen identifikatzailearekin lanean hasi baino lehen, entitate-ezagutzaileak (Nadeau eta Sekine, 2007; Tjong Kim Sang eta De Meulder, 2003) aztertu ditugu, eta artearen egoerako entitate-ezagutzaileak probatu ditugu SNOMED CTren deskribapenak analizatzeko. Eskuz egindako azterketa horren ondorioz, Stanforden CoreNLP tresnaren entitate-ezagutzaileak

[2]Bi terminoak Euskalterm Terminologia Banku Publikotik erauziak.

[3]https://eu.wikipedia.org/wiki/John_Dalton (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

[4]https://en.wikipedia.org/wiki/Eponym (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

[5]http://www.dictionary.com/browse/eponym (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

[6]https://en.wikipedia.org/wiki/Stockholm_syndrome (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

(Finkel *et al.*, 2005) eman ditu emaitza egokienak. Emaitza egokienak izan arren, eponimo gehienak identifikatu gabe gelditzen direnez, Internetetik eponimo ezagunen zerrendak erauzi ditugu, eta zerrenda horietan oinarrituta eponimo-ezagutzaile bat garatu dugu. Horrela, Stanforden CoreNLP tresnaren entitate-ezagutzailearen Pertsona klasekoak eta gure sistemak identifikatutako eponimoak etiketatzen ditugu eponimo gisa.

Eponimoen ezagutzaileak zerrendako eponimoak termino konplexuaren hitzen artean bilatzen ditu. Batzuetan, eponimo konposatuak erabiltzen dira gaixotasunak izendatzeko, *Verner-Morrison syndrome* terminoan, adibidez. Kasu horiek kontuan izanik, eponimoen zerrenda sortzeko garaian, eponimo konposatuetatik eponimo sinpleak erauzi ditugu. Horrela, adibidearen kasuan bi eponimo zerrendaratu ditugu. Ezagutzailearen estaldura hobetzeko, eponimo konposatuak ezagutzeko garaian, eponimoetako bakarra ezagututa eponimo konposatua osotasunean identifikatzen du. Eponimoen zerrenda osatzeko, SNOMED CTren termino guztiak analizatu ditugu, horietan identifikatutako eponimo konposatuetan osagai ezezagunak zerrendara gehituz. Amaieran 3.000 pertsona-izen inguruko zerrenda osatu dugu eponimoak identifikatzeko.

TermZerSCT: SNOMED CTren terminoen ezagutzailea

AnaMeden helburu nagusia termino barruan termino habiaratuak identifikatzea da. Nahiz eta gaur egun termino erauzle asko egon, KabiTermen beharretara egokitzen denik ez dago. Izan ere, gure kasuan ez zaigu terminoak orokorrean identifikatzea interesatzen, baizik eta SNOMED CTren baitan agertzen diren terminoak identifikatzea, eta euren hierarkia erabili nahi dugu.

Hori horrela izanik, TermZerSCT terminologia zerbitzaria prestatu dugu SNOMED CTren terminoen identifikaziorako. SNOMED CTren edukia oso zabala da, 300.000 kontzeptu inguru izanik, eta horren prozesaketa ez da berehalakoa. TermZerSCTri esker, eduki terminologikoaren kudeaketa zerbitzaria abiaratzean egiten dugu, eta zerbitzaria martxan dagoela, SNOMED CTren inguruko informazioa unean jasotzen dugu, itxaron denbora minimoekin.

Esan bezala, zerbitzari horrek SNOMED CTren eduki terminologikoa prestatzen du, bezeroak (AnaMed kasu honetan) behar duen informazioa ahalik eta modu eraginkorrenean jaso ahal izateko. Besteak beste, SNOMED CTren jatorri fitxategietatik abiatuz, aktibo dauden kontzeptuak modu

hierarkikoan sailkatzen ditu, eta horrela, SNOMED CTren kontzeptu identifikadore bat emanda, horren FSN, hobetsitako terminoa edo sinonimoak itzultzeaz gain, dagokion hierarkia ere ezagutu dezakegu. Informazio hori AnaMedetik eta eponimoen ezagutzailetik jasotako informazioari gehitzen zaio, 6.1 irudiko irteeran ikus daitekeen moduan.

Hurrengo taulan (6.1) ikus dezakegun bezala, termino bat izanda (*diabetes mellitus* adibidearen kasuan), bere SNOMED CTren kontzeptu identifikadorea lortu dezakegu, eta behin kode hori dugula, kontzeptuaren informazioa eskuragarri dugu, hala nola FSNa, termino hobetsia (PT), edo sinonimoak.

Azalpena	**Funtzioa**	**Emaitza**
Kodea lortu	`desc2sct`	73211009
Hierarkiak lortu	`sct2hie`	DISORDER
FSN lortu	`sct2fsn`	Diabetes mellitus (disorder)
PT lortu	`sct2term`	Diabetes mellitus
Sinonimoak lortu	`sct2syn`	DM - Diabetes mellitus

6.1 taula – *Diabetes mellitus* terminotik TermZerSCT zerbitzaria erabiliz lor dezakegun informazioa.

Zerbitzaria ingeleserako, espainerarako eta euskararako prestatu dugu, SNOMED CTren eduki terminologikoa hizkuntza horietan baitaukagu. Ingelesezko zein euskarazko bertsioak landuagoak ditugu. Horietarako, lematizatzailearen laguntzaz (Stanford CoreNLP ingeleserako eta Eustagger euskararako), terminoak lematizatuta bilatzeko aukera ere garatu dugu. Espainierakoari etorkizunean lematizatzeko aukera ere gehituko diogu.

AnaMedek, TermZerSCT zerbitzaria erabilita, termino konplexuen barruan dauden termino habiaratuak identifikatzen ditu, eta horiekin termino konplexuaren egitura aztertu dezakegu. Horretaz gain, termino habiaratuak eurak elkartu edo multzokatzen ditu "_" karakterearen bidez. Adibidez, *unstable diabetes mellitus* termino konplexuan, bi termino habiaratu identifikatu ditu: *unstable* kalifikatzailea eta *diabetes mellitus* nahasmendua. Identifikazio horri esker, AnaMedek analisi osoa emateaz gain, KabiTermerako oso erabilgarriak izango zaizkigun termino habiaratuen egitura (QUALIFIER+DISORDER) eta multzokatzea (*unstable diabetes_mellitus*) ere ematen dizkigu.

6.1.2 KabiTerm: termino konplexuen sorkuntza termino habiaratuak baliatuz

Atal honetan KabiTerm sistemaren aurkezpena egingo dugu. KabiTerm, transduktoreak erabiliz terminoen habiaraketan oinarritzen da termino konplexuetarako ordainak sortzeko. Tesi-lan honetan ingelesa-euskara hizkuntza parerako inplementatu ditugun transduktoreak eta aplikazioa aurkeztuko ditugu. Hala ere, sistema modu errazean egokitu daiteke beste edozein hizkuntza paretara.

KabiTermek aurreko atalean azaldutako AnaMed analizatzailetik jasotako informazioa erabiltzen du termino nagusian termino habiaratuak identifikatzeko. AnaMed ezinbestekoa ez izan arren, KabiTermen eraginkortasunean eragin positiboa dauka. Alde batetik, AnaMedek termino habiaratuen multzokatzea prestatzen du, transduktoreen eginkizuna sinplifikatuz. Bestetik, AnaMedek informazio linguistikoa prestatzen du, formen lemak eskainiz, eta horrela, KabiTermi pluralean dauden termino habiaratuen euskaratzeko gaitasuna ematen dio. Hortaz, KabiTermerako AnaMed erabat ezinbestekoa ez bada ere, eraginkortasunean eta emaitzetan eragin positiboa dauka.

Euskaratze-patroiak definitzeko, aurreko kapituluan NeoTerm sistema garatzeko erabilitako tresna bera, Foma (Hulden, 2009), erabili dugu. Foma bidez patroiak egoera finituko transduktoreen bidez inplementatu ditugu. Transduktoreak Fomaz idatzi baditugu ere, transduktoreen konbinaketa eta kudeaketa Python programazio-lengoaian idatzitako aplikazio batekin egin dugu.

Ingelesezko terminoen egituren analisia AnaMeden bidez

Esan dugun moduan, KabiTerm termino habiaratuetan oinarritzen da, hau da, termino konplexu batean agertzen diren beste terminoetan.

AnaMedi esker, SNOMED CTren terminoak termino habiaratuen egituraren arabera sailkatu ditugu. Hurrengo taulan (6.2 taula), egitura horien adibide batzuk ikus ditzakegu. Adibidez, *malignant neoplasm of renal calyx* termino konplexuan bi termino nagusi aurkitu ditugu *malignant neoplasm* nahasmenduen (*disorder*) hierarkiakoa bata eta *renal calyx* gorputz-egituren (*body structure*) hierarkiakoa bestea. Aipatu beharra dugu, habiaratutako termino gehiago ere aurkitzen dituela AnaMedek, hala nola *calyx* gorputz-egitura, *malignant* kalifikatzailea (*qualifier*) edo *neoplasm* nahasmendua.

Habiaratutako termino guztiekin sortu ditugu egiturak (ikusi 6.2 taulan

Terminoa	**Multzokatzea**	**Egitura**
structure of radial tuberosity	*structure of radial_ tuberosity*	structure+of+BODYSTR
Baelz's disease	*Baelz's disease*	EPONYM+'S+DISORDER
malignant neoplasm of renal calyx	*malignant_ neoplasm of renal_ calix*	DISORDER+of+BODYSTR

6.2 taula – AnaMeden bidez lortutako egiturak eta multzokatzeak.

azken zutabea), eta agerpen kopuruaren eta dependentzia kopuruaren arabera sailkatu ditugu. Hau da, egitura zenbat terminotan azaltzen den zenbatu dugu, eta termino hori zenbat terminotan agertzen den habiaratuta kontuan hartu dugu. Egitura horietako gutxi batzuk ikus daitezke 6.3 taulan ("Agerp." izenburuak agerpen kopuruari egiten dio erreferentzia eta "Depen." izenburuak egitura horrek beste terminoekiko duen dependentzia kopuruari). Adibidez, QUALIFIER+DISORDER egiturarako, 4.469 agerpen aurkitu ditugu, eta gainera 74.208 terminoetan agertzen da egitura hau habiaratuta. Lehentasun altuko egitura dela erabaki dugu, agerpen asko izateaz gain, gainerako termino konplexuak euskaratu ahal izateko oso garrantzitsua izango delako. QUALIFIER+*neoplasm* egitura aldiz, bere horretan 4 aldiz agertzen bada ere, beste termino konplexuek lau termino horiekiko duten dependentzia oso altua da (28.642 terminoen barruan agertzen da).

Egitura	**Adibidea**	**Agerp.**	**Depen.**
QUALIFIER+DISORDER	*unstable diabetes mellitus*	4.469	74.208
QUALIFIER+*neoplasm*	*malignant neoplasm*	4	28.642
PROCEDURE+of+BODYSTRUCTURE	*amputation of finger*	5.082	33.181
...	...	...	...

6.3 taula – SNOMED CTren terminoen egituren agerpenak eta dependentziak beste terminoekiko.

Bi adituri egitura horietako adibideak eman dizkiegu, horiei euskarazko ordainak emateko. Izan ere, Zabala *et al.* (2012) lanean erakusten duten bezala, hiztegi zein itzultzaileek jatorrizko terminoaren egituraren kalkoetara jotzeko joera duten bitartean, adituek euskararen berezko egituretara jo ohi dute. Hori horrela izanik, adituek sortutako lagina hobetsi dugu hiztegietatik erauzitako adibideak baino.

Adituek sortutako adibide horiek euskaratze-patroiak definitzeko oinarria izan dira. Domeinuko adituek duten jakintza terminoei ordain egokia eman ahal izateko, ezinbestekoa denez, euskaratzeaz arduratu diren adituak

medikuak izan dira. Adibideak lortzeko prozesua bi fasetan banatu dugu, lehenengo fasean lortutako patroien arabera hurrengo faseko egiturak eta adibideak aukeratu ahal izateko.

Lehenengo faserako 41 egitura aukeratu ditugu eta bakoitzeko gutxienez zoriz erauzitako 3 adibide. Aditu bakoitzari 28 eta 27 egitura eman dizkiogu hurrenez hurren, zeinetatik 14 egitura komunak diren, 6.2 irudian ikus dezakegun moduan. Denera 100 eta 97 adibideren euskarazko ordainak jaso ditugu, euretako 58 termino komunean dituztelarik.



6.2 irudia – Adituei banatutako lagina.

Komunean dituzten adibideen kasuan, adostasun altua neurtu dugu, eta desadostasun kasuekin, beraien arteko adostasuna bilatu dugu, irizpide berdinak erabil ditzaten. Hurrengo taulan (6.4 taula) adibide horietako batzuk ikus ditzakegu, non lehenengo adibidean ordain ezberdinak proposatu dituzten (nahiz eta gerora adostasuna lortu den), bigarrenean adostasuna izan duten, eta hirugarren eta laugarrenetan adibide ezberdinak dituzten. Adibideetan ikus daitekeenez adibide-terminoak ez dira sinpleak eta osasunari buruzko ezagutza behar da euskaratze egokia lortzeko.

Oinarrizko irizpideak argi izanik, bigarren faserako, 25na egitura prestatu ditugu, aditu bakoitzak denera 100 adibide inguru dituelarik. Bi faseak elkarturik, 340 adibide inguru izan ditugu euskaratze-patroiak definitzeko eta horietatik abiatuta 53 euskaratze-patroi definitu ditugu (C eranskinean ikus daitezke).

KabiTerm sistemaren diseinua

Euskaratze-patroiak lortzeko prozesua deskribatu ondoren, jarraian, besteak beste KabiTermek egiten duen patroi horien erabilera aztertuko dugu. Ka-

Ingelesa	**Aditu 1**	**Aditu 2**
cryotherapy to cranial nerve	nerbio kranialaren krioterapia	garezurreko nerbioen krioterapia
calcium regulating agent overdose	kaltzioaren agente erregulatzaileek eragindako gaindosia	kaltzioaren agente erregulatzaileek eragindako gaindosia
open fracture of scaphoid bone of wrist	eskumuturreko eskafoide hezurraren haustura irekia	
adrenergic neurone blocking drug adverse reaction		neurona adrenergikoen blokeatzaileek eragindako kontrako efektua

6.4 taula – Adituen euskaratzeen adibide batzuk.

biTermen funtzionamendua 6.3 irudian irudikatu dugu, eta honako pausoak ematen ditu:

1. Aurrena, sarrera terminoa AnaMedek analizatzen du, termino habiaratuak identifikatuz eta multzokatuz: *fracture of nasal bones* terminoaren kasuan, *fracture* nahasmendua da eta *nasal_ bone* gorputz-egitura. Termino habiaratuak multzokatzeaz gain, lematizazioa ere beharrezkoa izan da adibide honetan, *nasal bone* SNOMED CTren terminoa delako, baina ez *nasal bones* forma pluralean.

2. Bigarrenik, euskaratze-patroien identifikazio eta termino habiaratuen etiketatzerako transduktoreari deitzen diogu, eta honek, dagokion euskaratze-patroia aplikatuz, termino habiaratuei euskaratzeko beharrezko etiketak gehitzen dizkie. Kasu honetan, DISORDER+of+BODYSTRUCTURE egitura identifikatu du, eta horri dagokion euskaratze-patroia aplikatu dio: *fracture* terminoari "|DIS" etiketa gehitu dio, nahasmendu bat delako, *nasal_ bone* terminoari aldiz, "|BOD+Eko" etiketa eta "|BOD+areM" etiketak gehitu dizkio, gorputz-egitura izateaz gain, deklinabidea ere gehitu behar izan diolako ("+Eko" eta "+areM" adibidean). Horri guztiari, ordena aldatzeko etiketa ere gehitu dio, lehenengo terminoa amaieran jartzeko ("&LehenaAzkenera").

3. Jarraian, termino habiaratuen berrantolaketa egiten dugu, aurreko urratsak sortutako etiketari jarraituz (&LehenaAzkenera). Horrela, *fracture* terminoa lehenetik azkenera pasatzen da.



6.3 irudia – KabiTermen arkitektura eta funtzionamenduaren adibideak.

4. Laugarrenik, termino habiaratuen euskaratzeko transduktoreari deitzen diogu. Horrela, euskarazko ordainak jasotzen ditugu: "sudur-hezur+Eko haustura" eta "sudur-hezur+areM haustura" lortuz (hierarkien etiketak desagertu dira eta ingelesezko termino bakoitzaren euskarazko ordaina dugu irteeran).

5. Ostean, termino habiaratuetako bat jatorrian pluralean zegoenez, horren deklinabideak eguneratzen ditugu pluralaren forma jaso dezan: "+Eko" "+etako" bihurtzen da, eta "+areM" "+eM". Kasu honetan, "sudur-hezur+etako haustura" eta "sudur-hezur+eM haustura" lortu ditugu. Gogoratu, sarrerako terminoa pluralean dagoela (*fracture of nasal bones*). Adibide honetan gertatzen ez bada ere, izenondoren bat egonez gero, horren berrantolaketa ere gauzatzen da urrats honetan. Izan ere, euskaraz, izenondoak izenaren ondoren kokatzen dira, eta izenlagunak izenaren aurretik. Adibidez, "onbera" izenondoa, izenaren ostean kokatzen da, adibidez, "neoplasia onbera" terminoan ikusten dugun moduan. Izenlagunak, aldiz, izenaren aurrean gelditzen dira ingelesezko adjektiboen antzera, adibidez "jaiotzetiko kiste" terminoan "jaiotzetiko" izenlaguna izenaren aurretik ikus dezakegu.

6. Azkenik, termino habiaratuei deklinabideak gehitzeko transduktoreari deitzen diogu, euskarazko termino konposatuak lortuz: "sudur-hezurretako haustura" eta "sudur-hezurren haustura".

Azaldu berri dugun euskaratze-prozesu honetan hainbat faktore hartu ditugu kontuan. Genitiboaren kasuan, zenbaitetan ez da erraza izaten lekuzko genitiboa ala edutezko genitiboa erabili behar den erabakitzea. Adibidez, *"abdominal aorta"* terminorako, Euskaltermek lekuzko genitiboa, "abdomeneko barrunbe" erabiltzen du eta Anatomiako Atlasak genitiboa erabiltzen du, "abdomenaren barrunbe". Adituekin kontrastatuta, irizpide argia dago: kokapena adierazi nahi denean, lekuzko genitiboa; osoa-zatia erlazioa adierazi nahi denean, edutezko genitiboa (Zabala *et al.*, 2012). Hala ere, irizpide hori automatizatzea ez da argia, eta adituen iritzi jantzia ezinbestekoa da, testuingurua eta horren ulertzea ezinbestekoa delako. Hori horrela izanik, eta tesi honen helburua ez denez erreferentziazko ordainak sortzea, baizik eta ordain hautagaiak sortzea, gainsorkuntzaren bidea aukeratu dugu kasu horietan, eta bi modutara osatu ditugu terminoak.

Bigarren eta laugarren urratsetan, termino habiaratuak identifikatzeko, zein horiek euskaratzeko lexikoi elebidunak erabiltzen ditugu. Lexikoi horiek

SNOMED CTren terminoekin osatu ditugu, jadanik euskaratu ditugun bikoteekin alegia. Hierarkia bakoitzerako (nahasmendu, gorputz-egitura, ...) lexikoi bat sortu dugu, hierarkia bakoitzean ordain ezberdinak izateko aukera dagoelako, eta aldi berean, egituren identifikazioa hierarkien araberakoa delako.

Hurrengo lerroetan, bigarren, laugarren eta seigarren urratsetan sakonduko dugu. Izan ere, hiru urrats horietan euskaratze prozesua gauzatu ahal izateko transduktoreak definitu ditugu, eta gainerako hiru urratsak (lehenengo, hirugarren eta bosgarrena), prozesu prestatzeaz eta kudeatzeaz arduratzen dira.

Euskaratze-patroien identifikazio eta termino habiaratuen etiketatzerako transduktorea

Urrats honetako patroi bakoitza lau erregelen bitartez adierazi dugu. Lehenengoa egitura identifikatzeaz arduratzen da; bigarrenak etiketak gehitzen ditu; hirugarrenak patroiari dagokion identifikatzailea gehitzen dio; eta azkenak aurreko erregelak konbinatzen ditu, kendu beharreko ingelesezko hitzak kentzen ditu eta ordenari dagozkion etiketak prestatzen ditu. Hurrengo irudian (C.1) patroi baten erregela sorta osoa ikus dezakegu.

```
1  define Dis    ?+ @-> ... {|DIS} || Muga _ Muga ;
2  define Bod    ?+ @-> ... {|BOD} || Muga _ Muga ;
3  define SinGEN ?+ @-> ... {+areM} || Muga _ Muga ;
4  define GEL ?+ @-> ... {+Eko} || Muga _ Muga ;
5  define KenOf " " {of} " " -> " " ;
6  define OrdAldatuLehenaAzkenera ?+ @-> ... " " {&LehenaAzkenera} ;
7  ####################
8  define EzDisOfBod HDIS " " {of} " " HBOD;
9  define DisOfBod Dis " " {of} " " (Bod .o. [SinGEN|GEL]);
10 define EtDisOfBod ?+ @-> ... { |pat_or_011};
11 define TrDisOfBod EzDisOfBod .o. DisOfBod .o. KenOf .o.
       OrdAldatuLehenaAzkenera .o. EtDisOfBod;
```

6.4 irudia – KabiTermen identifikazioaren eta etiketatzearen patroi bat.

Alde batetik, etiketak gehitzeko erregela orokorrak ikus ditzakegu 1. lerrotik 6. lerrora: hierarkiaren etiketa gehitzekoa (1. eta 2. lerroak); deklinabide-markak gehitzekoak 3. eta 4. lerroetan; 5. lerroan ingelesezko *of* preposizioa kentzeko erregela; eta azkenik 6. lerroan ordena aldatzeko etiketa gehitzekoa, hasierako elementua amaierara eramatekoa kasu honetan.

Bestetik, DISORDER+of+BODYSTRUCTURE egiturari dagokion euskaratze-patroiaren identifikazio- eta etiketatze-erregelak ikus ditzakegu 8. lerro-

tik 11.era. Aurrena, egitura ezagutzeko erregela definitu dugu `EzDisOfBod` izenarekin: nahasmenduen hiztegiko termino bat (`HDIS` erregelan gordeta ditugu lexikoitik jasotako nahasmenduak), *of* preposizioa eta azkenik gorputz-egituren hierarkiako termino bat (`HBOD`). Bigarrenik, 9. lerroan, termino habiaratuei gehitu beharreko etiketak gehitzen dizkiegu `DisOfBod` erregelaren bitartez. Hamargarren lerroan, patroiaren etiketa orokorra gehitzen diogu (`EtDisOfBod`), garapena kontrolatzeko eta emaitzak emateko erabili duguna. Eta azkenik, aurreko hiru erregelak konbinatzeaz gain, *of* preposizioa kentzeko erregela eta ordena aldatzeko erregelak konbinatzen ditugu `TrDisOfBod` erregelan.

Bigarren urrats honetako euskaratze-patroi batzuren adibideak erakusten ditugu 6.5 taulan. Lehenengo erregela, eponimo batek eta nahasmendu batek osatzen dute. Patroian, termino bakoitzaren hierarkia adierazten dugu: `Epo` erregelak, eponimoen marka gehitzen du, eta `Dis` erregelak nahasmenduen marka. Horretaz gain, euskarazko ordainean ikusten dugunez, eponimoaren eta edutezko genitiboaren deklinabidearen artean marratxo bat gehitu diogu. Hori `MarGEN` erregelaren bidez gehitzen diogu. Kontuan izan, euskaraz eponimoak deklinabide-markarekin eta gabe erabiltzen ditugula. Hau da, "Down-en sindrome" eta "Down sindrome" biak sortuko ditugu. Izan ere, ingelesezko terminoetan eponimoek daudenean, aposizioak[7] sortzeko joera da nagusi (*Down syndrome*). Gaztelaniaz aldiz, *de* preposizioaren bidez osatutako sintagmak sortzen dira (*sindrome de Down*). Euskaraz, bere ezaugarriak kontuan izanik, naturalagoa da aposizioen formatua hartzea ("Down sindrome"), baina espainierarekin egindako kalkoengatik beste forma ere zabaldu da ("Down-en sindrome"). Are gehiago, Euskalterm bezalako erreferentziazko hiztegi terminologikoetan deklinatutako formak agertzen dira nagusiki. Kasu honetan ere, genitiboarekin bezala, gainsorkuntzaren alde egin dugu, eta adituen esku utziko dugu termino hobetsiaren aukeraketa eta sinonimoen baztertzea.

Bigarren adibidean, gorputz-egituraren etiketa gehitzeko `Bod` erregela erabiltzen dugu, eta edutezko genitibo singularraren marka ere gehitzen diogu `SinGEN` erregelaren bitartez. Azkenik, *structure* hitza ez da inongo hierarkiatan agertzen, eta bestelako zerrenda batean gehitu dugu `Bes` etiketa erabiliz. Zerrenda horretan (`Bes` zerrendan) hierarkietan agertzen ez diren hitz edo terminoak agertzeaz gain, patroi zehatzagoak definitzeko erabilitakoak gehi-

[7] Gure kasuan, bi izenez osatutako eraikuntza, non izenetako batek bestea azaltzeko edo zehazteko balio duen.

	Ingelesa	Euskara	Erregela
1	*Down syndrome*	Down-en sindrome Down sindrome	`(Epo .o. (MarGEN)) " " Dis`
2	*head structure*	buruaren egitura	`(Bod .o. SinGEN) " " Bes`
3	*heroin overdose*	heroinak eragindako gaindosi	`(Phar .o. ERGEra) " " Bes`
4	*fracture of hip*	aldakako haustura aldakaren haustura	`Dis" "{of}" "(Bod.o.[GEL|SinGEN])`
5	*benign neoplasm*	neoplasia onbera	`Qua "" Dis`

6.5 taula – KabiTermen identifikazio- eta etiketatze-urratseko erregela batzuk.

tu ditugu. Hori da hirugarren adibidean erakusten dugun kasua. Izan ere, ingelesezko *overdose* terminoa nahasmenduen hierarkiakoa bada ere, erregela berezitu bat sortu dugu termino horretarako, eta beraz, bestelako zerrendan ere gehitu dugu (`Bes`). Kasu honetan, `ERGEra` erregelarekin, ergatiboaren marka gehitzeaz gain, "eragindako" hitza gehitzeko etiketa jartzen diogu.

Laugarren adibidean, bi ordain sortuko ditugu (gutxienez), erregela horren bitartez. Izan ere, DISORDER+of+BODYSTRUCTURE egitura hain da orokorra, gainsorkuntzaren bitartez gorputz-egiturari edutezko genitiboa eta lekuzko genitiboa, biak, gehitzen dizkiogula ordainak lortzeko, lehenago azaldu dugun moduan.

Azkenik, bosgarren adibidean, kalifikatzaile bat eta nahasmendu bat aurkitzen ditu hurrenez hurren, eta horien etiketak gehitzen dizkiegu termino habiaratuei. Kasu honetan ez dira deklinabide-markak beharrezkoak izan, ez eta berrantolaketa etiketarik ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, adjektiboen berrantolaketa bakarrik izenondo direnean egingo dugulako. Adibide horretan euskaratze-patroiak hala zehazten duelako egin da termino habiaratuen arteko ordenean aldaketa.

Aurreko taulako (6.5 taula) adibideekin jarraituz, 6.6 taulan lehenengo faseko transduktoreek adibide horietarako sortzen duten irteera erakusten dugu, hurrengo urratsera pasako den informazioa erakustearren.

Termino habiaratuen euskaratzerako transduktorea

Laugarren urrats honetan, lexikoi elebidunak erabiltzen ditugu etiketatutako termino habiaratuak euskaratzeko. Aurreko urratsean bezala, lexikoiak `HDIS` (nahasmenduak) eta `HBOD` (gorputz-egiturak) moduko erregeletan jaso

	Ingelesa	**2. urratsaren irteera**
1	*Down syndrome*	Down|EPO+-+ReM syndrome|DIS Down|EPO syndrome|DIS
2	*head structure*	head|BOD+areM structure|BES
3	*heroin overdose*	heroin|PHAR+ak_eragindako overdose|BES
4	*fracture of hip*	fracture|DIS hip|BOD+ko &LehenaAzkenera fracture|DIS hip|BOD+areM &LehenaAzkenera
5	*benign neoplasm*	benign|QUA neoplasm|DIS

6.6 taula – KabiTermen identifikazio- eta etiketatze-urratseko irteeraren adibide batzuk.

ditugu (hierarkia bakoitzeko lexikoi bat). Terminoak esleituta duen etiketaren arabera dagokion lexikoia aplikatuko zaio 6.5 irudian 1. eta 10. lerroen arteko kodean ikusten dugun moduan. Horiek euskaratu ostean, hierarkia adierazten duten etiketak ezabatzen ditugu 11. lerroan. Hamabigarren lerroan erregelak konbinatzen ditugu, eta azkenik 13. lerroan, konbinatutako erregelak termino habiaratu guztiei aplikatzen dizkiegu. Kontuan izan, termino habiaratu konplexuak (hitz batekoak baino gehiagokoak), azpimarraren bidez multzokatuta egon behar dutela Fomak ondo funtziona dezan. Hortaz, uriunearen bidez bereizitako elementuak, termino ezberdinak kontsideratuko dira.

```
1  define IDIS HDIS "|DIS" ;
2  define IFIN HFIN "|FIN" ;
3  define IEPO HEPO2 "|EPO" ;
4  define IBOD HBOD "|BOD" ;
5  define IPROC HPROC "|PROC" ;
6  define IBEST HBEST "|BES" ;
7  define IPHAR HPHAR "|PHAR" ;
8  define IOBV HOBV "|OBV" ;
9  define IQUA HQUA "|QUA" ;
10 define ITZULE  [ IDIS | IEPO | IBOD | IPROC | IBEST | IPHAR | IFIN |
       IOBV | IQUA] (ETIKETAK);
11 define CLEANUP [ "|BOD" | "|EPO" | "|DIS" | "|FIN" | "|BES" | "|PROC" |
       "|PHAR" | "|OBV" | "|QUA" ] -> 0 ;
12 define ITZUL  ITZULE .o. CLEANUP ;
13 regex ITZUL [" " ITZUL]* ;
```

6.5 irudia – KabiTermen termino habiaratuen euskaratze--transduktorearen patroiak.

Hurrengo taulan (6.7), aurreko transduktoreen irteera (identifikazioa eta etiketatzea) eta urrats honetako irteera erakusten dugu: termino habiara-

tuen euskaratzea. Kontuan izan, hirugarren urratsa ere tartean gauzatu dugula (elementuen berrantolaketa). Taularen laugarren adibidea begiratzen badugu, ordenan aldaketa egon dela ikus dezakegu, hirugarren urratsaren eraginez. Foma erabiliz elementuen arteko ordena aldatzea oso konplexua da, eta hortaz, lehenago erakutsi dugun moduan, transduktoreetatik kanpo kudeatzen dugu termino habiaratuen berrantolaketa.

	2. urratsaren irteera	**4. urratsaren irteera**
1	Down|EPO+-+ReM syndrome|DIS	Down+-+ReM sindrome
	Down|EPO syndrome|DIS	Down sindrome
2	head|BOD+areM structure|BES	buru+areM egitura
3	heroin|PHAR+ak_eragindako overdose|BES	heroina+ak_eragindako gaindosi
4	fracture|DIS hip|BOD+ko &LehenaAzkenera	aldaka+ko haustura
	fracture|DIS hip|BOD+areM &LehenaAzkenera	aldaka+areM haustura
5	benign|QUA neoplasm|DIS	onbera&&&ADJK neoplasia

6.7 taula – KabiTermen termino habiaratuen euskaratze-transduktorearen irteeraren adibide batzuk.

Termino habiaratuei deklinabidea gehitzeko transduktorea

Azkenik, seigarren eta azken urratsean, deklinabideen etiketak baliatzen ditugu euskarazko termino konplexua osatzeko. Transduktore honen deklinabide erregelak Xuxen zuzentzaile ortografikoaren (Agirre *et al.*, 1992) transduktoreetatik jaso ditugu, euskarazko morfologia arauak errespeta daitezen. Adibidez, +Eko marka, lekuzko genitibo mugagabea sortzeko erabiltzen da. Aurreko adibidean bezala, "hezur" hitzarekin konbinatzean ("hezur+Eko"), "r" gogortu egiten da, eta "e" formaren barruan gelditzen da, "hezurreko" forma lortuaz. Aldiz, "birika" hitzarekin konbinatzean ("birika+Eko"), lema "a" letraz bukatzen denez, lekuzko genitiboaren "e" desagertzen da "birikako" forma osatuz.

Kasu honetan ere, ez dugu transduktorearen barruan kudeatu adjektiboen ordenaren afera, elementuen berrantolaketan esan bezala, Foman konplexua delako, eta horregatik bosgarren urratsean izenondoen berrantolaketaz arduratu gara. Gogoan izan, euskaraz, izenondoak izenaren ondoren kokatzen dira, eta izenlagunak izenaren aurretik. Bosgarren adibideari jarraiki (6.8 taula), *benign neoplasm* terminoari dagokion adibideari, 2. faseak

"onbera" termino habiaratua izenondo etiketarekin sortu du (&&&ADJK), eta aplikazio nagusiaren bitartez, "onbera" izenaren ostera pasatzen dugu.

	4. urratsaren irteera	**6. urratsaren irteera**
1	Down+-+ReM sindrome	Down-en sindrome
	Down sindrome	Down sindrome
2	buru+areM egitura	buruaren egitura
3	heroina+ak_eragindako gaindosi	heroinak_eragindako gaindosi
4	aldaka+ko haustura	aldakako haustura
	aldaka+areM haustura	aldakaren haustura
5	onbera&&&ADJK neoplasia	neoplasia onbera

6.8 taula – KabiTermen termino habiaratuei deklinabidea gehitzeko fasearen adibide batzuk.

Euskaratze-patroien zehaztasun batzuk

Patroiak ahalik eta zabalenak izan daitezen saiatu gara, orokortzea posible izan den heinean. Hau da, kasu batzuetan patroia hierarkia oso bateko termino guztiei zabaldu nahi izan badiegu ere, ez da posible izan, hierarkia bereko termino guztiak ez baitira berdin euskaratzen. Hona hemen kontuan izan ditugun fenomeno batzuk:

- Preposizioen euskaratze anitza: ingelesezko preposizio asko kalifikatzaileen hierarkian daude, baina preposizioak ez dira denak berdin euskaratzen. Adibidez, *with* normalean soziatibo deklinabidearekin ordezkatzen da, *on* inesiboarekin, *to* helburuzkoarekin, etab. Gure erregeletan, deklinabide-markak ez dira lexikoi bidez gehitzen, eta erregela zehatzek gehitzen dituzte beharrezkoak direnetan. Deklinabideak lexikoietara eramateak, gure sisteman aldaketa sakonak ekarriko lituzkenez, baztertzea erabaki dugu. Hala ere, egitura zehatz batean agerpen asko dituzten preposizioen kasuan, erregela zehatzak sortu ditugu, hala nola [PROCEDURE]+to+[BODYSTRUCTURE], [PROCEDURE]+on+[BODYSTRUCTURE] edo [DISORDER]+with+[DISORDER].

- Adjektiboen ordena: Kalifikatzaileen hierarkiaren kasuan, hasiera batean orokortzea ezinezkoa zela iruditu zitzaigun, adjektiboek euskaraz

ordenan aldaerak dituztelako. Hala ere, preposizioen kasuan ezinezkoa bada ere, gainerako terminoekin orokortu ahal izan dugu, izenondo eta izenlagun ezberdintasunari esker. Izan ere, hierarkia horretako hitz gehienak adjektiboak dira, eta euskaraz, adjektiboen izenarekiko ordena ez da beti zurruna. Aurretik ere aipatu dugun moduan, izenondoa bada, izenaren ostera mugitzen dugu, eta bestelakoetan dagoen bezala uzten dugu, ingelesezko terminoaren ordena berdinean. [QUALIFIER]+[DISORDER] egirura duten *benign neoplasm* eta *congenital cyst* adibideen kasuan, euskaraz "neoplasia onbera" eta "jaiotzetiko kiste" dira ordainak; "onbera" izenondoa izanik izenaren ostera mugitu dugu, eta "jaiotzetiko" izenlaguna izatean izenaren aurrean utzi dugu. Hori kontuan izanik, adjektiboen kasuan, izenondo ala izenlagun informazioa lexikoietan gorde dugu.

- Genitiboa izenetan: euskaratze-patroi batzuek termino habiaratu bati genitiboaren deklinabidea gehitzea eskatzen dute. Kasu horietan, termino hori izena dela ziurtatu behar izan dugu, gainerako kasuetan ez baitu genitiboaren marka onartzen. Izena ez den kasuetan, terminoa bere horretan utzi dugu, deklinabide markarik gabe. Adibidez, ingelesezko *hypertrophic rhinitis* terminoan, *hypertrophic* gorputz-egituren hierarkiakoa da (anomalia morfologikoak hierarkia honetan kokatzen dira), eta *rhinitis* nahasmendu bat. BODYSTRUCTURE+DISORDER egiturarako euskarazko NAHASMENDU+aren edo +ko GORPUTZ-EGITURA egitura baliokidea sortzen dugu. Adibideari jarraituz, "errinitis hipertrofikoko" edo "errinitis hipertrofikoaren" sortuko genuke, ordain akatsdunak izanik. Izan ere, patroi mota horiek (genitiboa eskatzen dutenak), izenetan betetzen dira, eta ez adjektiboetan.

- Termino habiaratuak pluralean: sistemaren estaldura hobetzeko, terminoen formak lexikoietan ez aurkitzean, horien lemak bilatu ditugu. Izan ere, AnaMedek estrategia berdina erabiltzen du terminoen identifikazioan. Forma pluralean badago, transduktoreei terminoaren forma singularra pasatzen diegu, lexikoietan alferrikako bikoizketak ekiditeko. Horrela, hirugarren faseko transduktoreei deitu aurretik, pluralean zegoen termino habiaratuaren ordainari pluralaren marka gehitzen diogu, deklinabidea ondo gehitu ahal izateko. Adibidez, 6.3 irudiko adibidean, *nasal bones* terminoa ez da SNOMED CTn agertzen, baina bere forma singularra (*nasal bone*) bai, adibidean ikusi dugun moduan, AnaMedi

esker terminoa singularrean mantendu dugu, deklinabide markak gehitu behar izan ditugun arte.

- Euskaratzeak mugatzea: sistemak duen arazo nagusia gainsorkuntzarena da. Gainsorkuntzaren arazoari aurre egiteko, hiztegiak mugatu ditugu. Horretarako, zerrenda beltzak sortu ditugu, garapenean identifikatutako ordain okerrak kenduz, esperientziaren bidez guk geuk ikasitakoa sistemari erakutsita, gure sistema egunetik egunera eraginkorragoa bilakatuz. Adibidez, *head* terminoak, anatomiako hiztegian hamabi ordain ditu, "buru", "humeroaren buru", "falangearen buru", ... dira horietako batzuk. Ikusten dugunez, *head* terminoak adiera horiek guztiak izan ditzakeen arren, ohikoena "buru" ordain orokorragoari dagokion adiera da, eta aurretik izango duen gorputz-egituraren bidez zehaztasuna gehituko zaio. Hori kontuan izanik, "buru" kenduta gainerako adierak zerrenda beltzean gehitu ditugu, gainsorkuntza kontrolatzeko asmoz. Lexikoietan gehitutako 4 ordain baino gehiagoko pareak eskuz berrikusi ditugu. Berrikuspen horri esker, gehienez bi ordain utzi dizkiegu termino horiei. Adibidez, *"head of seventh rib structure"* terminorako, gainsorkutza kontrolatu gabe, KabiTermek 360 ordain sortzen ditu, eta gainsorkuntza kontrolatzeko egindako aldaketekin, 4 ordain baino ez. Agerikoa denez, 360 ordain sortzeak ez du inolako onurarik ekartzen, nahiz eta ordainen artean zuzenak diren hainbat egon.

- Zenbaki ordinalak eta letra bakarreko terminoak: zenbaki ordinalak adierazten dituzten formek (*seventh*, adibidez), hiru adiera izan ditzakete: zenbaki ordinala bera (zazpigarren), zenbakia bera (zazpi) eta zatikia (zazpiren). SNOMED CTren terminoetan, gehienetan zenbaki ordinalari egiten zaio erreferentzia, eta hortaz, zenbaki ordinalaren ordaina baino ez dugu hiztegiratu. Gainera, letra bakarreko terminoei ez diegu ordaina bilatu, eta bere horretan utzi ditugu. Izan ere, SNOMED CTn orokorrean letra bakarrak multzoak edo motak adierazteko erabiltzen dira (*type C thymoma* adibidez), eta ez nota musikal edo bestelako ordain bezala (*C* Do nota adierazteko ere erabiltzen da).

KabiTerm sistema aurkeztu ostean, MatxinMeden aurkezpena egingo dugu jarraian. MatxinMed Matxinen (Mayor *et al.*, 2011) osasun-zientzietarako egokitzapena da, SNOMED CTren terminoekin elikatua dagoena.

6.2 Matxinen egokitzapena medikuntzaren domeinura

Atal honetan algoritmoaren azkeneko urratsa aurkeztuko dugu. Laugarren eta azken urrats honetan, Matxin deituriko Itzultzaile Automatikoa egokitu dugu osasun-zientzien domeinura. Aurrekarien atalean (6.2.1 atala) Itzultzaile Automatikoen inguruan zehaztasun batzuk emango ditugu, eta gaur egunean ingelesa-euskara hizkuntza-parerako eskura dauden Itzultzaile Automatikoak aurkeztuko ditugu. Ostean, 6.2.2 atalean, Matxin sistemari egin diogun egokitzapena azalduko dugu.

6.2.1 Aurrekariak

Itzulpen Automatikoaren helburua ordenagailuen bidez hizkuntza batetik bestera itzulpenak egitea da. Hizkuntzaren Prozesamenduko (HP) tekniken aplikazio izarretakoa izan da hasieretatik, eta gaur egunean ere interes handia sortzen duen gaia da, mundu globalizatu honetan elkar ulertzeko nahia dela-eta.

Itzulpen Automatikoari aurre egiteko hurbilpenak bi multzo nagusitan sailkatuak izan dira: Erregeletan Oinarritutako Itzulpen Automatikoa (EOIA) eta Corpusetan Oinarritutako Itzulpen Automatikoa (COIA). Erregeletan oinarritutakoek, hizkuntzekiko dugun jakintza linguistikoa erabiltzen dute oinarri gisa, eta corpusetan oinarritutakoek aurretik egindako itzulpenak oinarri hartuta, hurbilpen enpirikoak garatzen dituzte.

Atal honen garapenean, unean uneko erreferentziak aipatuko ditugu, baina orokorrean erabili ditugun erreferentziazko lanak Jurafsky eta Martin (2008), Mayor (2007) eta Artetxe (2016) izan dira.

Hurrengo lerroetan Itzulpen Automatikoaren paradigma ezberdinak aurkeztuko ditugu eta, zehazki, ingelesa-euskara hizkuntza parerako dauden sistemak ikusiko ditugu.

Erregeletan Oinarritutako Itzulpen Automatikoa

Erregeletan Oinarritutako Itzulpen Automatikoak jatorri-hizkuntzaren eta helburu-hizkuntzaren jakintza linguistikoa erabiltzen du itzulpena egiteko. Itzulpen-prozesua hiru fasetan banatzen da: analisia, transferentzia eta sorkuntza.

Analisian, itzuli beharreko testua ohiko hizkuntzaren prozesamenduko katea erabiliz analizatzen da, normalean analizatzaile morfologikoa, analizatzaile gramatikala (*POS tagger*) eta analizatzaile sintaktikoa barnebiltzen dituena. Analisi horren ondorioz, tarteko errepresentazio bat sortzen da.

Transferentzian, jatorri-hizkuntzaren tarteko errepresentazioa transferitu egiten da helburu-hizkuntzaren tarteko errepresentaziora. Bi motako transferentziak daude: transferentzia sintaktikoa eta transferentzia semantikoa. Transferentzia sintaktikoek lexiko eta egitura mailan lan egiten dute hiztegi elebidunak eta transferentzia-erregelak erabiliz. Transferentzia semantikoek, semantika maila gehitzen diote transferentziari, esanahia adierazteko egitura gehigarriak erabiliz.

Azkenik sorkuntzan, helburu-hizkuntzako tarteko errepresentaziotik itzulpena lortzen da, askotan hiztegi morfologikoak baliatuz.

Hiru motako sistemak bereizten dira erabilitako informazioan eta abstrakzio mailan oinarrituta (Hutchins eta Somers, 1992). Estrategia horiek 6.6 irudian erakusten dugun Vauquois-en triangeluaren bidez adierazi ohi dira: itzulpen zuzenak, transferentzian oinarritutako sistemak eta interlingua bidezko sistemak.



6.6 irudia – Vauquois-en triangelua.

Vauquois-en triangeluaren mutur batean dauden itzulpen zuzenak ez dute analisirik erabiltzen eta beste muturrean dauden interlingua sistemek ez dute transferentziaren beharrik. Triangeluaren gailurrera hurbiltzen garen heinean, tarteko errepresentazioa konplikatuz doa, eta horrela, analisi sakonagoa behar da.

Corpusean oinarritutako itzulpen automatikoa

Corpusean Oinarritutako Itzulpen Automatikoa (COIA) eskuz egindako itzulpenez baliatzen da eta metodo enpirikoak erabiltzen ditu berauek ustiatzeko. Azken urteetan ordenagailuek izan duten garapenari eta Interneten topa daitekeen testu kopuru ikaragarriari esker, corpusean oinarritutako teknikak asko garatu dira. Itzulpen Automatikoari dagokionean, corpus paraleloak[8] dira baliabide nagusia.

Bi motatako COIAk daude, Adibideetan Oinarritutako Itzulpen Automatikoa (AOIA, ingelesez *Example Based Machine Translation* edo EBMT) eta Itzulpen Automatiko Estatistikoa (IAE, ingelesez *Statistical MT* edo SMT). AOIAk itzulpen-prozesuan esaldi-zatiak corpuseko adibideekin parekatzen ditu, horien itzulpen-zatiak identifikatzen ditu eta azkenik zati horiek birkonbinatzen ditu itzulpena sortzeko. IAEek aldiz, corpus paralelo handietatik erauzitako datu estatistikoak erabilita sortzen dituzte itzulpenak, horretarako informazio linguistiko espliziturik erabili gabe.

IAEak izan dira azken urteetan gehien garatu diren sistemak ikerketaren munduan. Hiru motatako sistema estatistikoak bereizten dira: hitzetan oinarritutakoak, hitz-segidetan oinarritutakoak (ingelesezko *phrase-base*) eta hitz-segida hierarkikoetan oinarritutakoak (ingelesez *hierarchical phrase-base*). Hasiera batean hitzetan oinarritutakoak erabiltzen zirenak baziren ere, gaur egunean sistema gehienak hitz-segidetan oinarritutakoak dira[9]. Hala ere, azken urteetan ikasketa sakonaren (*deep learning* ingelesez) agerpen arrakastatsuari esker, tradiziozko IAEak Itzulpen Automatiko Neuronalengatik ordezkatuak izaten ari dira (Sennrich *et al.*, 2016).

Hitz-segidetan oinarritutako IAEetan itzulpen-prozesuan bi eredu sortzen dira: itzulpen-eredua bera, eta hizkuntza-eredua. Itzulpen-eredua sortzeko corpus elebiduna erabiltzen den bitartean, hizkuntza-eredua sortzeko helburu-hizkuntzaren corpus elebakarra erabiltzen da.

Itzulpen-ereduak probabilitatea esleitzen dio jatorri-hizkuntzako esaldiari, helburu-hizkuntzako esaldi batera itzultzen denean. Helburu horrekin, hitz-segidetan oinarritutako ereduek jatorri eta helburu esaldiak parekatutako segmentuetan banatzen dituzte (informazio linguistikoa kontuan hartu gabe) eta parekatze horien probabilitateak kalkulatzen dituzte. Probabilita-

[8]Corpus paraleloetan, testu paraleloak segmentu mailan parekatuak daude. Orokorrean esaldi mailako parekatzea egiten da.

[9]Ingelesez *phrase* hitzak sintagmak adierazten baditu ere, hauek ez dira sintagma linguistikoak, hitz-segidak baizik, eta horregatik guk hitz-segidetan oinarritakoak deritzegu.

teen kalkuluen inguruan informazio gehiago Koehn *et al.* (2003) artikuluan jaso daiteke.

Hizkuntza-ereduak aldiz, helburu-hizkuntzan gertatzen diren hitz-segidei probabilitatea esleitzen die. Eredu asko proposatu badira ere, ohikoenak n-grametan oinarritutakoak dira. Horrela, hitz-segida baten probabilitatea hitz bakoitza aurreko hitzekin agertzeko duen probabilitatearekin lortzen da.

Sistema estatistikoen artean, Moses (Koehn *et al.* 2007) da zabalduenetakoa. Moses Itzulpen Automatiko Estatistikorako kode irekiko tresna da, IAEak entrenatu eta doitzeko (*tuning*) aukera ematen duena. Sistema estatistikoak garatzea asko errazten du Moses sistemak, eta sistema funtzional bat lortzeko beharrezko denbora minimizatzen du.

Corpusean oinarritutako itzulpen automatikoen kalitatea, corpus paraleloen tamainarekin hertsiki lotuta dago. Are nabariagoa izaten da hori hizkuntza parearen ezaugarriak oso ezberdinak direnean (urrutiko hizkuntzak), euskara eta ingelesaren artean, adibidez. Kontuan izan, euskararen eta ingelesaren gramatikak oso ezberdinak direla. Gainera, ingelesa nagusiki hizkuntza analitikoa da, eta euskara hizkuntza eranskaria, morfemak elkartuz hitzak sortzen dituelarik. Alde horiek itzulpengintzarako erronka handia dira, hitzen arteko parekatzea ez delako zuzenekoa eta hitzen hurrenkeran aldaketak egin behar direlako, besteak beste.

Ingelesa-euskara parerako Itzultzaile Automatikoak

Gaur egunean ingelesa-euskara parerako aurkitzen ditugun sistema gehienak erregeletan oinarritutako sistemak dira, hizkuntzen urruntasunak eta corpus-paralelo erraldoien faltak baldintzatuta ziurrenik. Izan ere, ikusi dugun moduan, hizkuntza urrunak direnez, corpus are handiagoa beharrezkoa da itzulpenaren kalitatea ziurtatzeko.

Hurrengo lerroetan, ingelesa-euskara hizkuntza parerako eskuragarri dauden itzultzaile automatikoak deskribatuko ditugu:

- **Matxin** (Mayor *et al.*, 2011) IXA taldean garaturiko sistema librea da. Jatorrian gaztelania-euskara hizkuntza parerako garatu bazen ere, ingelesa-euskara parerako ere egokitua izan da (Aranberri *et al.*, 2015). Erregeletan oinarritutako itzulpen-sistema da, kode irekikoa. Transferentzian oinarritutako sistemen arkitektura klasikoa jarraitzen du, hiru modulu nagusi barnebiltzen dituena: jatorri-hizkuntzaren analisia, jatorritik helbururako transferentzia eta helburu-hizkuntzaren sorkuntza (6.7 irudia).

Analisiaren moduluan, Stanforden CoreNLP tresna erabiltzen da ingelesezko analisia egiteko. Analisitik honako informazioa jasotzen da: hitzen informazioa (kategoria gramatikala eta flexio morfologikoa), zatiak (zatien arteko dependentzia-harremanak, ingelesez *chunk* deritzo) eta esaldi mota.

Transferentziaren moduluan, bi motatako informazioa kudeatzen da: ezagutza lexikala eta egiturazkoa. Transferentzia lexikala hiztegien bitartez lemen ordain egokiak eskuratzeaz arduratzen da, eta egiturazko transferentzia, ezaugarri morfosintaktikoez arduratzen da, zati eta hitz egokiei esleituz.

Sorkuntza modulua aldiz, bi urrats nagusitan banatuta dago. Lehenengoa zatien barruko hitzen ordenaz arduratzen da, baita zatien arteko ordenaz ere. Horretaz gain, zati mailan jasotako informazioa, flexioa jaso behar duen hitzari esleitzen zaio (euskararen kasuan zatiaren azken elementuari). Bigarren urratsean, sorkuntza morfologikoa egiten da, hiztegi morfologiko baten laguntzaz (kasu honetan Euskararen Datu-Base Lexikala, EDBL (Aldezabal *et al.*, 2001) erabiltzen da), eta jatorrizko lemetatik forma egokia sortzen da.



6.7 irudia – Matxinen arkitektura orokorra. Irudia, Aranberri (2016) artikulutik jaso dugu.

- **TectoMT** erregeletan oinarritutako itzulpen-sistema da, modulartasun handia duena (Popel eta Žabokrtskỳ, 2010). Sistema, sintaxian oinarritzen da transferentzia egiteko garaian, eta Matxinek baino analisi sakonagoa egiten du, abstrakzio maila altuagoa lortuz. Horretarako, tektogramatikaz baliatzen da (Hajicová, 2000), dependentzia-zuhaitz sintaktiko sakonen bidez hizkuntza errepresentatzen duena. Erregeletan oinarritutako sistema bada ere, teknika estatistikoak erabiltzen ditu

itzulpen-prozesuaren hainbat modulutan. Jatorrian ingelesetik txekierara itzultzeko sistema bada ere, berriki sistema ingelesa-euskara pareRako egokitu da QTleap[10] proiektuaren baitan (Aranberri *et al.*, 2016b).



6.8 irudia – TektoMTren arkitektura orokorra. Irudia Popel eta Žabokrtskỳ (2010) artikulutik jaso dugu.

- **Google** enpresaren Google Translate dohaineko itzulpen-zerbitzua aski ezaguna da mundu osoan zehar. 2001 urtean argitaratu zutenetik 2005-2006 urte ingurura arte, Google Translate Systran deituriko erregeletan oinarritutako sisteman oinarritzen zen. Hasiera horietan, ingelesaren eta beste zortzi hizkuntzen arteko itzulpenak egiten zituen. 2005 urtetik aurrera, sistema estatistikoak erabiltzen hasi ziren, gerora hizkuntza guztietara zabaltzeko eta urte bereko *NIST DARPA TIDES Machine Translation Evaluation* izeneko txapelketan lehenengo postua eskuratu zuten arabiera-ingelesa eta txinera-ingelesa sistema estatistikoekin[11]. Estatistikan oinarritutako itzulpen-sistemek Europar Batasunaren eta Nazio Batuen dokumentazio paraleloa erabiltzen dute eta baita webetik erauzitako datu paraleloak ere.

  2010etik aurrera, euskararako *alpha* bertsioa argitaratu zuten, eta gaur egunean 90 hizkuntzetarako eskaintzen dituzte itzulpen-sistemak. Goo-

[10] http://qtleap.eu (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

[11] NISTetik jasota http://www.itl.nist.gov/iad/mig//tests/mt/2005/doc/mt05eval _official_results_release_20050801_v3.html (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

gle Translate tresnak, corpus paralelo txikia duten hizkuntza pareetarako, ingelesa *pibote* hizkuntza gisa erabiltzen du itzulpenak egiteko. Hau da, jatorri-hizkuntzatik, aurrena ingelesera itzultzen du, eta ostean ingelesetik helburu-hizkuntzara.

Oso zehaztasun gutxi ezagutzen dira Google Translate sistemaren inguruan, eta garatzaileek azkeneko berriak eta egitura orokorrari buruzko informazio minimoa baino ez dute argitaratzen. Horrela, sistema dohainekoa izan arren, kodea ez dago eskura egokitzapenak egin ahal izateko.

- **Lucy** sistema Eusko Jaurlaritzaren proiektu bati esker gaztelania-euskara eta beranduago ingelesa-euskara pareetarako garatu zen. Oso zaila da itzultzaile komertzial honi buruzko informazioa lortzea. Komertziala den heinean, ez dute sistemaren zehaztasunik eman inongo ikerketa kongresutan edo aldizkaritan. Hala baina, sarean aurkitutako aurkezpen baten diapositibetan (Gieselmann, 2008) eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) web-orrian lortutako informazioari[12] esker, sistemaren datu orokor batzuk jakin ditzakegu: i) erregeletan oinarritzen den sistema hau, analisi morfologiko zein sintaktikoan oinarritzen da; ii) transferentzia lexikala eta egiturazkoa egiteaz gain, testuinguruaren transferentzia ere egiten du; eta iii) sorkuntza morfologikoaz gain, helburu-hizkuntzaren araberako prozesuak ere egiten ditu.

- **EuSMT** IXA taldean garatutako sistema estatistikoa da. Mosesen oinarrituta, bi hurbilpen garatu dira ingelesa-euskara hizkuntza parerako. Lehenengo hurbilpena, oinarri-lerroa deiturikoa (**EuSMTo**), Mosesen bidez sortutako hitz-segidetan oinarritutako IAE sistema estandarra da. Entrenamenduan erabilitako corpus-paraleloaren % 85a Elhuyarren itzulpen-memorietatik erauzia izan da eta gainerako % 15a webetik automatikoki erauzia izan da PaCo2 (San Vicente eta Manterola, 2012) tresna erabiliz.

  Bigarren hurbilpenean, segmentazioa gehitu zaio sistemari (**EuSMTs**). IAE sistemek hizkuntza antzekoen artean funtzionatzen dute hobeto, hau da, ezaugarri gramatikal antzekoak dituztenen artean. Kasu honetan, ingelesa hizkuntza nagusiki analitikoa da, morfema bakoitzerako

7.1 XuxenMed: osasun-zientzietarako zuzentzaile ortografikoa

Ortografia-zuzentzaileek maiz eraginkortasuna galdu egiten dute hizkuntza oso teknikoa erabiltzerakoan. Izan ere, terminologia espezializatua ez da hiztegi orokorretan agertzen, eta zuzentzaileak hiztegi horietatik elikatzen dira. Hortaz, testu oso espezializatua idazten badugu, testuaren zati handiak gorriz azpimarratuta ager daitezke, akatsak balira bezala, nahiz eta termino horiek domeinuan zuzenak izan. Horrelakoetan erabiltzaileak zuzentzailea erabiltzeari utz diezaioke, lagundu ordez, lana ematen diolako benetako

akatsak bereizteak. Arazo horri aurre egiteko, Xuxen (Agirre *et al.*, 1992) zuzentzailea oinarri hartu dugu eta berau osasunaren domeinuko hiztegi espezializatuetako hitz-sarrerekin elikatu dugu. Xuxenen gehitu dugun hiztegi espezializatua osatzeko, 5. kapituluan lortutako euskarazko terminoak erabili ditugu, egokitzapena egiteko unean eskura genituenak dira-eta. Prozesu honetan, 32.728 lema gehitu ditugu Xuxenen hiztegian eta XuxenMed izena eman diogu egokitzapen honetatik sortutako zuzentzaileari.

Xuxen zuzentzaile orokorrak alta-txosten batean egiten dituen zuzenketak ikus ditzakegu 7.1 irudian, eta 7.2 irudian aldiz medikuntzara egokitutakoak egiten dituen zuzenketak. Ikus daitekeenez, Xuxen orokorrak (7.1 irudia) medikuntzari loturiko zenbait hitz okertzat hartzen ditu ("sinusal", "gastroskopioa", "behazunbidea" eta "Adenokartzinoma"), eta XuxenMedek (7.2 irudia), aldiz, zuzentzat ditu.

ELEKTROKARDIOGRAMA (EKG).	Erritmo sinusal normala.
GASTROSKOPIA.	Anestesia topikoa jarri ostean, gastroskopioa ahotik barrena sartuta: hestegorriak kalibre eta mukosa normala du; urdailaren zabalgarritasuna eta uzkurtasuna normalak dira; ez da odol-aztarnarik ikusten, ez eta lesiorik ere; piloro normala. Duodeno-
ABDOMENEKO OTA.	Gibela, barea, pankrea, behazuna, behazunbidea, giltzurrunen-gaineko guruina eta giltzurrunak normalak. Itsuaren paretaren gizentze bat ikusten da, neoplasia itxurakoa. Ez da adenopatiarik ikusten.
ANATOMIA PATOLOGIKOA.	Adenokartzinoma.

7.1 irudia – Xuxen ortografia-zuzentzaileak zuzendutako testua.

ELEKTROKARDIOGRAMA (EKG).	Erritmo sinusal normala.
GASTROSKOPIA.	Anestesia topikoa jarri ostean, gastroskopioa ahotik barrena sartuta: hestegorriak kalibre eta mukosa normala du; urdailaren zabalgarritasuna eta uzkurtasuna normalak dira; ez da odol-aztarnarik ikusten, ez eta lesiorik ere; piloro normala. Duodeno-
ABDOMENEKO OTA.	Gibela, barea, pankrea, behazuna, behazunbidea, giltzurrunen-gaineko guruina eta giltzurrunak normalak. Itsuaren paretaren gizentze bat ikusten da, neoplasia itxurakoa. Ez da adenopatiarik ikusten.
ANATOMIA PATOLOGIKOA.	Adenokartzinoma.

7.2 irudia – XuxenMed medikuntzako ortografia-zuzentzaileak zuzendutako testua.

XuxenMed Firefox nabigatzailerako gehigarri moduan prestatu dugu, eta hobetze prozesuan egonik, oraindik publikoki zabaldu ez badugu ere, gurekin harremanetan ipinita banatzeko prestutasun osoa dugu. Etorkizunean, Firefox nabigatzaileaz haratago, ohiko testu-editoreetan ere gehitzeko moduluak garatu nahi ditugu.

Ortografia-zuzentzailea egokitu ondoren, osasun-txostenak idazteko lehen prototipoa sortzeari ekin genion, eta hori da hurrengo atalean azalduko duguna.

7.2 Osasun-txostenak euskaraz idazteko laguntza-prototipoa

Atal honetan osasun-txosten elebidunak lortzeko lehen prototipoaren garapena aurkezten dugu. Prototipoa lortzeko zaintza klinikorako informazioa kudeatzeko sistema bat sortu dugu horretarako prestatuta dagoen *Innovative Clinical Information Management Systems*ek (iCIMS) garatutako *Clinical Care Information System*[1] softwareari esker. Sistema honen oinarrian dauden terminologia-zerbitzariak euskararako eta espainierarako sortu ditugu (*CliniTermServer* tresnaren moldapenak, jatorrizkoa *Health Language Analytics*-ek garatu duena). Prototipoa eraikitzeko, Donostia Unibertsitate Ospitaleko alta-txostenen bildumako (Joanes Etxeberri Saria V. Edizioa, 2014) "Digestio-aparatua" espezialitateko eredua erabili dugu. Horrela, euskaraz alta-txostenak idazteko eta modu errazean haren terminologiaren espainierako baliokideak lortzeko prototipoa eraiki dugu.

Aipaturiko alta-txostenen bilduman, Donostia Unibertsitate Ospitaleko espezialitate ezberdinetako alta-txostenen ereduak agertzen dira, euskaraz idatzitako alta-txostenen adibideak, hain zuzen ere. Hogeita hamar espezialitate eta berrogeita hiru alta-txosten barnebildurik daude bilduma horretan eta benetan erabiltzen diren egiturak jasotzen dira bertan. Gainera, esfortzu berezia egin dute egileek bertan ageri den euskarazko terminologia zuzena izan dadin.

Clinical Care Information System edo CCIS, zaintza klinikorako informazioa kudeatzeko sistemari deritzo iCIMS enpresak. Sistema honek gaixoaren informazioa kudeatzeko aukera zabaltzeaz gain, osasun-arloko langileek euren azterketa eta prozeduren ondorioz idatziz jaso nahi duten informazioa modu antolatu eta egituratuan idazteko aukera ematen du. Gainera, gaixoaren historia klinikoa modu bateratuan gordetzeko aukera ematen du eta horrela kudeaketa errazten du. iCIMSek CCISak diseinatzeko softwarea eskaintzen du *formBuilder* txantiloi-sortzaileari esker, eta ondorioz, egokitutako CCIS berriak sor daitezke modu errazean. Software hori oso malgua da aldaketak

[1] http://www.icims.com.au/solutions/products/ (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

eta eguneraketak egiteko garaian.

Garatu dugun prototipoa CCIS sistema bat da, eta *formBuilder* txantiloi--sortzailea erabili dugu honen hezurdura diseinatzeko. Diseinu honetan, lehen txantiloia osatzeko Donostia Unibertsitateko Ospitaleko "digestio-aparatua" espezialitaterako alta-txosten eredua erabili dugu, dagoeneko esan dugun moduan.

Alta-txostena idazteko sistemak duen txantiloiaren zati bat ikus dezakegu 7.3 irudian. Bertan ikus daitekeen bezala, atal eta azpiatal ezberdinak definituta daude ("Ospitaleratzeko arrazoia", "Aurrekariak" e.a.) horiek guztiak alta-txostenen bildumatik jasotako ereduei jarraituz. Atal batzuk hautazkoak izanik (ikusi "Proba osagarrien laburpena" atala), horiek klik erraz batean agertu edo desagertuko dira, alta-txostena betetzen ari den osasun-langileak beharretara egokitutako alta-txostena idatz dezan.

Gainera, osasun-langileen gomendioei jarraituz, atal batzuei eduki lehenetsia esleitu diegu. Eduki lehenetsi honek gaixoaren egoera "normala" adierazten du. Adibidez, "Aurrekariak" atalean, egoera normala "Ez du alergiarik. Ez du ohiko tratamendurik." izango litzateke, hau da, alteraziorik gabeko egoera. Modu horretan, osasun-langileak egoera normaletik at dagoen osasun-egoera topatzen duenean bakarrik aldatu beharko du eremuaren edukia, idazketa-lana sinplifikatuz. Eskakizun hori, langileen denbora-kudeaketari erantzuten dion behar bat da; izan ere, gaixoari eskaini ahal dioten denbora laburra da, eta egoeraren alteraziorik ez dagoenean osasun-txostenen atal guztiak bete behar izatea denbora-galeratzat hartzen dute.

Hiztegi elebidunean termino baten bilaketa egiteko eremua definitu dugu (ikus 7.3 irudian "Hiztegi-kontsulta" aukera). Dena dela, funtzionalitate hori ez da oraindik CCIS tresnan eskaintzen.

Prototipoaren azalpenekin jarraitu ahal izateko, aurrenik *CliniTermServer* terminologia-zerbitzariaren gainean egindako ekarpenak azalduko ditugu. Ikusi dugun bezala, CCIS sistemako txantiloian testu-kutxak daude. Testu--kutxa horietan automatikoki ezagutzen dira osasun-terminoak *CliniTermServer* terminologia-zerbitzariari esker.

*CliniTermServer*ek osasun-arloko terminologia eta beste hainbat pseudotermino eta zerrenda barnebiltzen ditu. Besteak beste, osasun-txostenetan maiz erabiltzen diren esamoldeak eta izen-sintagmak jasotzen dira, baita salbuespeneko jokabidea dutenak ere. Zerbitzari honek terminologia jasotzeaz gain, berau prozesatzeko softwarea ere eskaintzen du, esaterako, gordeta duen terminologia testuan identifikatzeko gai da, eta terminoarekin loturiko informazioa eskaintzen du.



7.3 irudia – "Digestio-aparatua" espezialitaterako garaturiko CCIS sistema.

CliniTermServer terminologia-zerbitzaria ingeleserako bakarrik eskaintzen du *Health Language Analitics* enpresak, eta guk berau euskararako eta espainierarako egokitu dugu. Terminologia zerbitzari hori beste hizkuntzetara egokitzeko, hizkuntzaren menpekoak diren prozesamendurako tresnak

behar izan ditugu, tokenizatzailea eta lematizatzailea, hain zuzen ere.

CliniTermServer egokitzeko honako tresnak erabili ditugu: espainieraren kasuan hizkuntzaren prozesamendurako Freeling kode irekiko liburutegiaren 3.1 (Padró eta Stanilovsky, 2012) bertsioa izan da eta euskararako IXA taldeak garaturiko Eustagger etiketatzaile/lematizatzailea (Ezeiza *et al.*, 1998).

Hizkuntza prozesatzeko tresnak erabiltzeaz gain, eduki terminologikoz elikatu behar izan ditugu *CliniTermServer*eko espainierazko eta euskarazko zerbitzariak. Espainierarako sortutako zerbitzarirako, SNOMED CTren nazioarteko banaketaren espainierazko bertsioa jaso dugu, 2014ko apirilaren 30eko banaketa[2], hain zuzen ere. Euskarazko zerbitzarirako aldiz, tesi-lan honetan garatutako SNOMED CTren 2014ko apirilean genuen bertsioa erabili dugu, Perez-de Viñaspre eta Oronoz (2015) lanean argitaratutakoa, hain zuzen ere.



7.4 irudia – "Digestio-aparatua" espezialitaterako garaturiko CCIS sistema, termino klinikoak identifikatuta dituelarik.

Prestatu ditugun zerbitzari terminologikoek, bi funtzionalitate nagusi eskaintzen dizkigute: i) testuan agertzen diren SNOMED CTren termino edo deskribapenak identifikatzea eta ii) SNOMED CTren kontzeptu baten identifikadorea jaso eta honen adierak ematea. Aipatu moduan, hiru zerbitzari ezberdin prestatu ditugu: ingeleserako (HLA enpresak eskainia), euskararako

[2]http://www.nlm.nih.gov/research/umls/licensedcontent/snomedctfiles.html (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

eta espainierarako (guk egokituak). Lan horretarako, hizkuntza ezberdinetako zerbitzariak konbinatu ditugu, eta euren artean komunikatzeko SNOMED CTren kontzeptu-identifikadorea erabili dugu, kontzeptu bat identifikatu, eta beste hizkuntza batean ordainak emateko. Horren adibideak 7.4 irudian ikus ditzakegu, euskarazko zerbitzariak testuan dauden terminoak identifikatu, eta espainierazko zerbitzariak horien espainierazko baliokideak ematen dituenak: "alergiarik" deskribapenerako *"disposición alérgica"* edota "tentsio arteriala" terminorako *"presión sanguínea"*.

Itzulpen prozesua nola egiten den ikusteko, azter dezagun "Ez du alergiarik" esaldia 7.4 irudian. Euskarazko esaldia tokenizatu ostean, esaldiaren tokenak euren lemarekin ("Ez izan alergia") ordezkatu dira. Ondoren, lema guztiak SNOMED CTren kontra parekatzen ditu zerbitzariak. Kasu honetan, "alergia" terminoak bakarrik jaso du SNOMED CTren kontzeptu-identifikadorea ("609328004"). Kontzeptu-identifikadore hori espainierazko zerbitzariari pasatakoan, *"disposición alérgica"* terminoa itzuli digu, hau da, espainierazko SNOMED CTn kontzeptu horri loturik dagoen hobetsitako terminoa.

Terminologia-zerbitzarien konbinazio honi esker, osasun-langileek esanguratsuak diren terminoak aukeratu ahal izango dituzte, eta kontzeptu bati dagozkion ordain guztien artean egokia zein den aukeratzeko. Hau da, desanbiguatzeko aukera dute, itzulpen automatikoan akats gehien sortzen duen ataza sinplifikatuz.

Prototipo hau web-aplikazio bat izanik, 7.1 atalean aurkeztutako XuxenMed zuzentzaile ortografikoa erabili daiteke, idazketan lagungarria izango dena.

Laburbilduz, sortu dugun prototipoa iCIMS enpresaren *formBuilder* tresnarekin egin dugu, eta, ikusi dugun moduan, prototipoa sortzeko abantaila asko eskaintzen ditu, eramangarritasuna, aldakortasuna eta berehalakotasuna besteak beste. Hala ere, ez da guk garatu nahi dugun proiekturako diseinatua izan eta hainbat muga jartzen dizkio lortu nahi genukeen produktuari. Horregatik, iCIMSeko softwaretik ideiak jaso eta kode irekiko beste prototipo bat garatzen hasi gara. Garatzen ari garen softwareak oso modu errazean txantiloi berriak sortzea ahalbidetzen digu, eta dagoeneko AnaMed analizatzailea integratu diogu idazten den testuan SNOMED CTren terminoak identifikatu ahal izateko.

7.3 Laburpena eta ondorioak

Tesi-lanean sortutako euskarazko osasun-arloko terminoak bi aplikaziotan erabili ditugu. XuxenMed zuzentzaile ortografikoan eta osasun-txostenak euskaraz idazteko prototipoan.

Bietan une zehatz batean, 2014 urtean, eskura genituen baliabideak erabili ditugu, baina modu errazean eguneratu daitezke aplikazio horien hiztegiak gaur egunean dugun lexikoarekin.

XuxenMed tresna xumea izanagatik ere, oso erabilgarria dela uste dugu. Hala ere, XuxenMeden terminoak integratu baditugu ere, ez dugu ebaluazio berezirik egin bere funtzionamendu egokia egiaztatzeko. Gure ustez, etorkizunari begira, Xuxenen egin zenari jarraiki, lexikoaren eguneraketetan akatsak gertatu diren egiaztatzeko zerrendak sortu beharko lirateke, aurrez ondo egiten zena ez galtzeko eta maiztasun handiko hitz edota terminoen prozesaketa egokia bermatzeko, dela erabilera orokorreko zein teknikoko hiztegia erabiltzaileak darabilkina.

Osasun-txostenak idazteko sistemak ordea bide luzeagoa du. Esan dugun moduan, kode irekiko bideari ekin diogu eta etorkizunean idazketa prozesua errazteko baliabide gehiago gehitu nahi dizkiogu, adibidez, terminoak idatzi ahala automatikoki osatzeko proposamenak luzatzea edo SNOMED CTren eduki eleanitzean termino baten ordainak bilatzeko aukera izatea. Eta jakina, osasun-txostenen itzulpen automatikoaren ikerketa-lerroari ekin nahi diogu.

8

Ondorioak eta etorkizuneko lanak

Tesi-lan honetan hizkuntza minorizatu batentzako osasun-alorreko terminologia automatikoki sortzeko algoritmo bat diseinatu eta garatu dugu. Horrela, baliabide lexikalak berrerabiltzeaz haratago, corpus paralelorik gabe, terminoak sistematikoki sortzeko bi sistema garatu ditugu (NeoTerm eta KabiTerm), eta Matxin itzultzaile automatikoari domeinuetara egokitzeko funtzionalitatea gehitu diogu. Horretaz gain, osasun-txostenak euskaraz idazteko laguntzak ere inplementatu ditugu.

Terminologia euskaratzeko, SNOMED CTren eduki terminologikoa hartu dugu erreferentzia moduan. Osasun-zientzietako domeinuan, SNOMED CT da baliabide terminologiko kliniko eleaniztun osatuena, eta zehaztasun eta estaldura handia dauka. Mundu osoan da erabilia gaur egun, eta informazio klinikoa kodetzeko, eraузteko edota aztertzeko erabiltzen da.

Jarraian, tesi-lanean zehar egindako lanen ondorio nagusiak (8.1 atala) eta tesi-lanaren garapenetik egindako ekarpen nagusiak (8.2 atala) zerrendatuko ditugu. Bukatzeko, etorkizunean tesi-lan honek irekita utzi dizkigun bideak eta ikerketa-lerroak azalduko ditugu 8.3 atalean.

8.1 Ondorio nagusiak

Gure helburu nagusia osasun-zientzien domeinuko testuak automatikoki prozesatzeko euskararako baliabideak sortzea izan da. Horretarako, terminologia euskaratzea urrats ezinbestekoa dela deritzogu, eta hori izan da tesi-lan honen eginkizun nagusia. Literaturan argitaratutako lanak aztertu ditugu, eta

tesi-lanarekin hasi aurretik corpusetan oinarritutako lanak aurkitu ditugu, nagusiki. Euskara bezalako hizkuntza minorizatu baterako teknika horiek ez dira aplikagarriak, osasun-zientzietako corpus paralelo zein konparagarririk ez dagoelako. Horrenbestez, corpusak erabiltzen ez dituzten teknikak proposatu eta garatu ditugu tesi-lan honetan. Jarraian lanaren ezaugarri nagusiak laburbiltzen ditugu:

Hurrengo lerroetan ondorio nagusiak zerrendatuko ditugu gaiaren arabera sailkatuta.

- **Iturria:** Terminologia euskaratzeko teknikak edo sistemak garatu aurretik, SNOMED CT bera aztertu dugu, analisi kuantitatiboa eginez. SNOMED CT eleaniztuna izanik, iturri moduan ingelesa edo espainiera hartuko dugun erabakitzen lagundu digu analisi horrek. Kasu honetan, ingelesezko bertsioa hartu dugu abiapuntutzat, SNOMED CTren jatorrizko bertsioa izateaz gain, tesi-lana hasi genuenean espainierazko bertsioa ez zelako egonkorra, eta ondorioz gabeziak zituelako. Erreferentziazko hierarkiak ere aukeratu ditugu, eta hierarkia populatuenekin hastea erabaki dugu: aurkikuntza klinikoak (eta nahasmenduak, jakina), prozedurak eta gorputz-egiturak. Hierarkia horietarako eman ditugu emaitzak baina hierarkia guztietako terminoak euskaratu ditugu. SNOMED CTk osasun-txostenetan esanguratsua den edozein informazio ere jasotzen badu ere, hierarkia populatuenak eta aldi berean terminologia klinikoarekin lotura estuena dutenak aukeratu ditugu.

- **SNOMED CTren euskaratzea kudeatzen duen sistema**: SNOMED CT euskaratzeko EuSnomed sistema diseinatu eta garatu dugu. Sistema horren baitan, terminologia euskaratzeko lau urratsetako algoritmoa diseinatu dugu. Lehenengo urratsak baliabide lexikal espezializatu eta elebidun/eleaniztunak erabiltzen ditu ordainak lortzeko. Bigarrenak, termino neoklasikoak euskaratzen ditu, afixuen baliokideen eta transliterazioaren bidez. Hirugarren urratsa, termino konplexuen egitura habiaratuan oinarritzen da ordainak sortzeko patroiak definitzeko. Azkenik, laugarren urratsak, itzultzaile automatiko orokor bat egokitzen du termino konplexuen ordainak lortzeko. Algoritmoa inplementatzeaz gain, sistema honek informazioaren biltegiratzeaz ere arduratzen da, baita sortutako ordain berrien berrerabiltzeaz ere.

- **Termino sinpleen euskaratzea**: Lehenengo bi urratsak bereziki termino sinpleak euskaratzeko diseinatu baditugu ere, baliabide lexikalen

kasuan edozein luzeratako terminoak euskaratzeko gai gara. Erabilitako baliabide lexikalen artean, SNOMED CTren euskaratzean emaitza hoberenak lortu dituztenak ZT Hiztegia (0,99ko doitasuna), Euskalterm terminologia bankua (0,89ko doitasuna) eta Erizaintzako Hiztegia (0,94ko doitasuna) izan dira adituen ebaluazioaren arabera. Giza Anatomiako Atlasa doitasunari dagokionez ez bada ere horren nabarmena izan, gorputz-egituren euskaratzean ekarpena nabarmena da. Termino neoklasikoak euskaratzeko, NeoTerm deituriko sistema sortu dugu, eta honen hiru hurbilpen garatu ditugu. Lehenengo hurbilpena oinarrilerro sistema da, afixu neoklasikoen konposaketan oinarritzen dena. Hurbilpen honek doitasun altua izan arren (0,89), estaldura txikia du (0,34). Bigarren hurbilpenean, estaldura hobetzea izan dugu lehentasuna. Estaldura hobetzeari begira, bigarren hurbilpenean transliterazio modulua integratu dugu, afixuen hiztegiak zabaltzearekin batera. Doitasunean emaitza kaxkarragoak lortu baditugu ere (8 puntu gutxiago), estaldura asko igo da (48 puntu), estaldura eta doitasunaren arteko oreka lortuaz (0,81eko F-neurria). Azkeneko hurbilpenean, termino neoklasikoen identifikazioa findu nahi izan dugu, termino neoklasikoak ez diren terminoak NeoTermek bazter ditzan, erroreak ekiditeko. Horretarako, identifikaziorako algoritmoa findu dugu, adituek proposaturiko irizpideak kontuan izanik. Hurbilpen honekin, aldiz, ez dugu emaitzak hobetzea lortu, eta bigarren hurbilpenarekin alderatuta, doitasuna bere horretan geratu bada ere, estaldurak 7 puntu behera egin du. Emaitzak aztertuta, NeoTermen bigarren hurbilpena da EuSnomeden integratu duguna, transliterazio-moduluan oinarritzen dena, alegia. Euskaratze-algoritmoaren bi urrats horiekin SNOMED CTren termino sinpleen % 75etik gora euskaratzea lortu dugu erreferentziazko lau hierarkietan (nahasmenduak, aurkikuntzak, gorputz-egiturak eta prozedurak).

- **Termino konplexuen euskaratzea**: Termino konplexuak euskaratzeko, aldiz (algoritmoaren azken bi urratsak), termino habiaratuetan oinarritzen den KabiTerm sistema garatu dugu, eta Matxin Itzultzaile Automatikoa osasun-zientzien domeinura egokitu dugu MatxinMed deitu dugun bertsioan. KabiTermek termino konplexuen barruan agertzen diren beste terminoek osatzen duten egitura baliatzen du euskaratze-patroi batzuen bitartez euskarazko ordaina sortzeko. Termino habiaratu horien SNOMED CTren hierarkiak erabili ditugu terminoen egiturak aztertzeko eta euskaratze-patroiak definitzeko. KabiTerm eta

MatxinMed Medbaluatoia deritzon kanpainan ebaluatu ditugu, eta artearen egoerako Google Translate tresnarekin konparatu ditugu. Emaitza oso positiboak izan dira, bai parte-hartzeari dagokionez, baita gure sistemen kalitateari dagokionez Google-ekin alderatzean. Bereziki azpimarragarriak dira KabiTermek lortutako emaitzak, gainerako sistemei nabarmenki irabazi baitie. Medbaluatoiak euskal osasun-zientzien komunitatea inplikatu du sistemen ebaluazioa egiteko. Horrela, aditu talde txiki batek ebaluatu beharrean, komunitate zabalagoak ebaluatu ditu KabiTerm eta MatxinMed. Ebaluazioak oso erantzun positiboa izan zuen komunitatearen aldetik (217 parte-hartzaile eta 15.000 ebaluaziotik gora), eta lanean jarraitzeko irrika zabaldu digute. Medbaluatoiak euskal osasun-zientzien komunitatea inplikatzeko tresna oso erabilgarria dela frogatu du, eta etorkizunean antzeko ekintzak abiatzea aurreikusten dugu, SNOMED CTren euskarazko bertsioaren baliozkotzea eta zuzentzea helburu, adibidez.

- **SNOMED CTren euskaratzearen estaldura-emaitzak**: EuSnomed sistemaren estaldura-emaitza orokorrak 8.1 taulan ikus ditzakegu (doitasunari dagozkionak kapituluetan zehar eman ditugu). Bertan ikus dezakegunez, MatxinMedek aurreko urratsetan euskaratu gabe gelditu diren termino guztiak euskaratzen ditu (hitz bakarreko gehienak bere horretan uzten baditu ere), eta horrela SNOMED CTren euskarazko *alpha* bertsio osatua lortu dugu. MatxinMed alde batera utzita, lortutako emaitzak token kopuruen arabera ikus ditzakegu 8.2 taulan. Ikusten dugunez, token bakarreko termino gehienak termino sinpleak euskaratzeko teknikek euskaratzen dituzte, eta aurkikuntzen hierarkia kenduta, bi tokeneko terminoen estaldura altua lortzen dute. Azpimarratzekoa da, KabiTerm garatzeko landu ditugun egiturak gehienak nahasmenduak eta gorputz-egiturak deskribatzeko terminoak izan direla, eta horregatik bi hierarki horietarako lortzen ditugu estaldura daturik altuenak (% 30 inguru). Izan ere, nahasmenduen termino askoz gehiago ditugu beste hierarkietakoak baino, eta gorputz-egituren kasuan, termino konplexuen egitura oso errepikakorra da.

	Nahasmenduak			Aurkikuntzak			Gorputz-egiturak			Prozedurak		
	Eus.	**Estal.**	**Ord.**	**Eus.**	**Estal.**	**Ord.**	**Eus.**	**Estal.**	**Ord.**	**Eus.**	**Estal.**	**Ord.**
GNS10	11.060	-	-	2.555			-	-	-	-	-	-
Bal. lex.	5.750	0,050	6.975	1.635	0,030	2.343	4.667	0,079	6.599	747	0,086	981
NeoTerm	1.868	0,016	1.951	622	0,001	717	676	0,011	726	1.266	0,015	1.308
KabiTerm	26.136	0,228	102.724	4.054	0,077	15.868	12.497	0,210	43.913	10.651	0,122	34.232
MatxinMed	81.076	0,706	81.076	46.539	0,881	46.539	41.535	0,699	41.535	74.436	0,855	74.436
Denera	114.830	1,000	180.952	52.857	1,000	95.089	59.384	1,000	92.029	87.104	1,000	109.200

8.1 taula – EuSnomeden SNOMED CTren euskaratze-estaldura.

		token1	2token	3token	4token	≥5token	Denera
Nahasmen.	**Eusk.**	3.265	8.335	9.966	5.614	6.574	33.754
	Den.	3.865	21.003	25.038	20.757	44.167	114.830
	Estal.	0,845	0,397	0,398	0,271	0,149	0,294
Aurkikun.	**Eusk.**	1.449	2.442	1.413	568	439	6.311
	Den.	1.940	9.737	11.906	11.317	24.640	59.540
	Estal.	0,747	0,251	0,119	0,050	0,018	0,106
Gorputz--egiturak	**Eusk.**	1.907	4.308	4.631	3.444	3.550	17.840
	Den.	2.592	10.863	12.599	10.635	22.695	59.384
	Estal.	0,736	0,397	0,368	0,324	0,156	0,300
Prozedur.	**Eusk.**	1.698	3.295	2.744	2.456	2.471	12.664
	Den.	1.985	9.892	15.399	17.082	42.746	87.104
	Estal.	0,855	0,333	0,178	0,144	0,058	0,145

8.2 taula – Jatorrizko ingelesezko terminoen token kopuruaren araberako emaitza orokorrak estaldurari dagokionez.

- **Sortutako gainerako aplikazioak**: EuSnomed sistemaren baitan terminologia euskaratzeko garatutako sistemez gain, euskarazko SNOMED CTren erabilgarritasuna frogatu nahi izan dugu osasun-txostenen idazketarako laguntzak garatuz. Xuxen zuzentzailearen medikuntzarako bertsioa (XuxenMed) sortu dugu, euskarazko ordainak hiztegiratu ditugularik. Gainera, euskaraz osasun-txostenak idazten laguntzeko prototipo bat sortu dugu, eta bertan idatzitako SNOMED CTren terminoak identifikatzen ditugu.

Osasungintza euskalduntzeko lan handia egiteke badago ere, hemen aurkeztu dugun lana argi-izpi bat izan daiteke. Oraindik orain osasun-txosten elebidunak sortzeko proiektua hastapenetan badago ere, oinarri itxaropentsua ezarri dugu etorkizunean osasun-txosten elebidunak gure osasun-sistemaren egunerokoan erabili ahal izateko. Modu honetan, osasun-langile eta gaixo euskaldunon hizkuntza-eskubide batzuk bermatzeko bidea erraz daiteke.

8.2 Ekarpenak

Tesi-lan honetan egin dugun ekarpen nagusia terminologiaren sorkuntza automatikorako teknika berriak garatzea izan da. Literaturan corpus elebidun zein elebakarretan oinarritutako teknikak erabiltzen dituzten lan asko aurki

badaitezke ere, gutxi dira hurbilpen horretatik at dauden lanak. Tesi-lan honekin, euskara bezalako hizkuntza minorizatuetarako interesgarriak izan daitezkeen erregeletan oinarritzen diren sistemak garatu ditugu. Gainera, garatu ditugun metodo automatikoak erabilgarriak direla frogatu dugu, itzultzaile eta adituen lana errazten duelako.

Ekarpen nagusi horretaz gain, ekarpen gehiago ere egin ditugu tesi-lan honetan zehar, eta jarraian zerrendatuko ditugu:

- **SNOMED CTren euskaratzea kudeatzen duen EuSnomed sistema garatu dugu.** (4. kapitulua)

  Euskaratze-algoritmoa inplementatzen duen EuSnomed sistema garatu dugu. Algoritmoa inplementatzeaz gain, euskaratze-prozesu osoa kudeatzen du, baliabide lexikalen integraziotik, emaitzen kalkuluak egitera. Sistema, exekuzioan lortzen dituen euskarazko ordain berriak berrerabiltzeko diseinatuta dago, eta, horrela, algoritmoaren urrats bakoitzak aurreko urratsak sortutako ordainak ere berrerabil ditzake. Kode guztia GitHuben eskuragarri dago[1].

- **Termino neoklasikoak euskaratzeko NeoTerm sistema garatu dugu.** (5. kapitulua)

  NeoTerm ingelesezko termino neoklasikoak euskaratzeko erregeletan oinarritzen den sistema da. Horretarako, osasun-zientzietako termino neoklasiko horien afixuen hiztegi elebiduna sortu dugu eta transliterazio erregelak definitu ditugu, modu errazean. Kode hau ere GitHuben eskuragarri dago[2]. Afixuen ingeles-euskara pareak hainbat adibideekin batera web-orri batean jarri ditugu eskuragarri eta NeoTermen demoa ere erabil daiteke[3].

- **Termino habiaratuetan oinarrituz, termino konplexuak euskaratzen dituen KabiTerm sistema garatu dugu.** (6. kapitulua)

  Termino konplexuak euskaratzeko KabiTerm sistema sortu dugu. Horrek, ingelesezko termino konplexuak euskaratzen ditu, termino konplexuen barruan agertzen diren termino habiaratuen egitura baliatuz.

[1] https://github.com/olatz87/euSnomed
[2] https://github.com/olatz87/NeoTerm
[3] http://ixa2.si.ehu.eus/neoterm/ (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

Hau da, termino habiaratuek osatzen dituzten egituretarako euskaratze-patroi batzuk definitu ditugu, euskarazko termino konplexuen egitura sortzeko. Kode guztia GitHuben eskuragarri dago[4].

- **Matxini domeinu zehatzera egokitzeko funtzionalitatea gehitu diogu eta MatxinMed sortu dugu.** (6. kapitulua)

  Matxin erregeletan oinarritzen den Itzultzaile Automatikoa da, testua espainieratik euskarara eta ingelesetik euskarara itzultzen duena. Guk Matxini domeinuetara egokitzeko funtzionalitatea gehitu diogu. Domeinu bat baino gehiago aukera daiteke, horien arteko lehentasunak zehaztuz. Funtzionalitatea gehitzeaz gain, osasun-zientzietarako bertsioa garatu dugu, MatxinMed, horretarako SNOMED CTren eduki terminologikoa integratu diogularik. Kodea laster izango da eskuragarri Matxinen GitHub orrian[5].

- **Osasun-zientzien euskal komunitatea Medbaluatoia kanpainan inplikatu dugu.** (6. kapitulua)

  Termino konplexuen euskaratzea ebaluatzeko, osasun-zientzien euskal komunitatea inplikatzen duen ebaluazioari heldu diogu. Horretarako Ebaluatoiaren moldaera egin dugu, eta Medbaluatoia deritzon kanpaina diseinatu eta martxan jarri dugu. Kanpainak oso erantzun positiboa izan zuen komunitatearen aldetik eta horrelako iniziatiba gehiagoren beharra agerian utzi dugu.

- **Osasun-zientzietarako analizatzailea (AnaMed) eta SNOMED CTn oinarritzen den terminologia-zerbitzaria (TermZerSCT) garatu ditugu.** (6. kapitulua)

  AnaMed osasun-zientzietarako hizkuntza-analizatzailea da, informazio linguistikoa analizatzeaz gain, SNOMED CTren terminoak testuan identifikatzen dituena, baita eponimoak ere. TermZerSCT, aldiz, terminologia-zerbitzaria da, zeinak SNOMED CTren inguruko informazioa kudeatzea ahalbidetzen duen, prozesamendu-denbora minimoarekin. Kode guztia GitHuben dago eskuragarri[6,7].

[4] https://github.com/olatz87/KabiTerm
[5] https://github.com/matxin/matxin
[6] https://github.com/olatz87/anaMed-en
[7] https://github.com/olatz87/TermZerSCT

- **SNOMED CTren euskarazko *alpha* bertsioa sortu dugu.**

  Euskaratze-algoritmoari esker, SNOMED CTren euskarazko *alpha* bertsioa sortu dugu, metodo erabat automatikoekin. SNOMED CTren euskarazko lehen bertsioa izateak interes handia piztu du, bereziki Osakidetzaren Euskara Zerbitzuan, eta euskarazko SNOMED CT gainbegiratua sortzeko hitzarmena sinatu dugu Osakidetzak eta IXA taldeak lankidetzan.

- **Euskarazko osasun-zientzien corpusa osatu dugu.** (6. kapitulua)

  Tesiarekin hasi ginen unean, ez zegoen euskarazko osasun-zientzien domeinuko inolako corpusik. MatxinMeden garapenerako, osasun-zientzien euskarazko hizkuntza-eredu baten beharra izan genuen, sinonimoen artean "hoberena" aukeratu ahal izateko. Horretarako, iturri ezberdinetatik izaera ezberdinetako testuak bildu ditugu, testu-liburuetatik hasita ikasleen apunteetara. Tamalez, ezin dugu corpusa argitaratu, jabetza- eta lizentzia-arazoak direla medio, baina sortu dugun hizkuntza-eredua argitaratu dezakegu, eta eskuragarri jarriko dugu laster.

- **Zuzentzaile ortografikoa osasun-zientzietara egokitu dugu.** (7. kapitulua)

  XuxenMed deitu dugun zuzentzaile ortografikoa Xuxen zuzentzailearen egokitzapena da. Momentuz, Firefox nabigatzailerako plugina prestatu dugu bere *alpha* bertsioan eta eskaerapean banatzen dugu. Azken datuekin eguneraketa egiten dugunean, plugina publikoki eskuragarri jarriko dugu.

- **Euskarazko osasun-txostenen idazketarako laguntzaile baten prototipoa sortu dugu.** (7. kapitulua)

  Osasun-langile euskaldun askok adierazi dutenez, osasun-txostenak euskaraz idazteko zailtasunak dituzte. Hori dela eta, Donostia Ospitaleko Alta Txostenen bilduma oinarri harturik, idazketarako bi prototipo garatu ditugu. Lehenengorako, iCIMS enpresak garatutako softwarea erabili dugu. Kode jabeduna izanik, ezin dugu kode hori zabaldu. Bigarrena, aldiz, Django-n oinarritzen den web-aplikazioa da, eta kode guztia GitHuben eskuragarri dago[8].

[8] https://github.com/olatz87/OsatEus

- **Osasun-txosten elebidunen ikerlerroa ireki dugu eta gaia mahai gainean jarri dugu.** (7. kapitulua)

  Osasun-zientzietan, eta bereziki alor klinikoan, euskararen normalizazioa lortu nahi badugu, euskarak osasun-txostenetan presente egon behar du. Euskal Herriko osasun-sistema guztietan langile elebakar asko dagoenez, euskara hutseko osasun-txostenek gaixoaren segurtasuna kolokan jar dezakete. Horretarako, osasun-txostenen denbora errealeko itzulpen erdi-automatikoa egitea proposatu dugu, SNOMED CT terminologia eleaniztunaren iturria delarik. Hizkuntza kontrolatua definitzeko beharra ikusten dugu itzulpenaren kalitatea bermatu ahal izateko. Ikerlerro hau oraindik hastapenetan egon arren, Osakidetzak interes handia erakutsi du honek aurrera egin dezan.

- **Euskara oinarri hartuta, osasun-arloko langileak eta informatikariak elkarlanean ipini ditugu.**

  Osasun-arloko langileekin elkarlanerako zubiak eraiki ditugu, euskara normalizatzeko helburuarekin. Elkarlan oso emankorra izan da, eta etorkizunean garatuko ditugun proiektu eta ideia asko definitzeko baliagarria izan zaigu. Guri, informatikarien ikuspegitik beraien ezagutza ezinbestekoa izan zaigu, eta beraiei, ezagutzen ez zituzten ideia eta aukera berriak ezagutzea ekarri die.

8.3 Etorkizuneko lanak

Batetik, tesi-lan honetan guztiz amaitu gabe gelditu diren lanak, eta, bestetik, lan honi jarraipena emateko dauden ikerlerroetako batzuk zerrendatuko ditugu jarraian:

- **SNOMED CTren euskarazko bertsio egonkorra lortzea, adituek banan-banan kontzeptuak gainbegiratuta**.

  Jakina da automatikoki proposaturiko terminoak ez direla zuzenak izango ehuneko ehunean. Guk tesi-lan honetan sortu dugun SNOMED CTren bertsio automatikoa adituek errepasatu beharko dute, eta kasuan kasu terminoak zuzendu, berriak proposatu edota automatikoki proposaturikoa berretsi beharko dute. Gainera, SNOMED CTren bertsio ofiziala osatzeko, kontzeptu bakoitzaren sinonimoen artean bat aukeratu beharko dute adituek hobetsi gisa.

- **Automatikoki proposaturiko terminoen eta adituek aukeraturiko terminoen arteko aldakortasuna neurtzea**.

  Adituek gainbegiratutako SNOMED CTren euskarazko bertsio egonkorra lortzen dugunean, guk automatikoki proposaturiko termino edo deskribapenen eta adituek aukeratutakoen arteko aldakortasuna neurtu ahal izango dugu. Honek oso ikerketa-gai interesgarria irekitzen du, eta tesi-lan honetan garatutako sistemen sakoneko ebaluazioa berma lezake.

- **Akronimoen itzulpen automatikoa egitea**.

  Akronimoen itzulpena landu gabe geratu zaigu tesi-lan honetan. Esku artean dugun domeinuan berebiziko garrantzia dute, ordea, akronimoek.

- **AnaMed analizatzailea espainierara egokitzea**.

  Dagoeneko AnaMed ingeleserako eta euskararako garatu dugu eta oso interesgarria litzateke espainierara ere egokituko bagenu. Izan ere, Hego Euskal Herrian idazten diren osasun-txostenetan gaztelania da nagusi, eta berauek prozesatzen lagungarria izan daiteke AnaMed. IXA taldeak garatutako FreelingMed tresna izango dugu abiapuntu, dagoeneko SNOMED CTko terminoak identifikatzen baititu.

- **KabiTermen, MatxinMeden eta AnaMeden demoak sortzea.**

  Sortu ditugun tresnak erabiltzaileen esku utzi nahi ditugu, eta horretarako demoak prestatu nahi ditugu. Kodea eskuragarri egon arren, osasun-arloko langileentzat ez da baliagarria, eta demo batekin gure sistemen indarguneak ikusi eta baliatu ahalko dituzte.

- **EuSMT sistema domeinura egokitzea**.

  Hiztegi elebidunak eta corpus elebakarrak erabilita, EuSMT itzultzaile estatistikoa, osasun-zientzien domeinura egokitu nahi dugu, eta MatxinMeden emaitzekin alderatu. Corpus paraleloa lortu bitartean zaila izango da estatistikan oinarritutako itzultzaile automatikoekin lan egitea, baina lan oso interesgarriak aurkitu ditugu corpus elebakarretan eta hiztegietan oinarritutakoak. Kontuan izan behar dugu Ebaluatoia kanpainan sistema honek jaso zuela emaitzarik onena, eta emaitza on horiek domeinura ekarri nahi ditugu.

- **Sistema beste baliabide terminologiko batzuk euskaratzeko egokitzea**.

  EuSnomedentzat diseinatu dugun algoritmoa beste baliabide terminologiko batzuk euskaratzeko erabili nahi dugu. Izan ere, Osakidetzako Euskara Zerbitzuak interes berezia dauka GNS10 euskaratzeko, eta proiektu bat abiatu dugu gure tresna egokitzeko. Horretarako, KabiTermerako patroi berriak definitu beharko ditugu GNS10ek dituen terminoen egitura oso berezia delako (sailkapenera bideratuta dago). Adibidez *"Salmonella infection, unspecified"* moduko deskribapenak oso maiz ikus ditzakegu, eta SNOMED CTn ez.

- **XuxenMed ohiko testu-editoretan erabiltzeko prestatzea**.

  Momentuz, XuxenMed Firefox nabigatzailean erabiltzeko baino ez dugu prestatu. Etorkizunean, XuxenMeden hiztegia eguneratzeaz gain, testu-editoreetan erabiltzeko moduluak garatu nahi ditugu.

- **Euskarazko SNOMED CT komunitatean baliozkotzeko sistema prestatzea**.

  Medbaluatoia SNOMED CTren terminologia balidatzeko egokitu nahi dugu. Izan ere, kanpainan zehar hainbat parte-hartzailek zuzentzeko aukera eskatu ziguten, eta gehiagorako gogoarekin geratu ziren. Jendearen prestutasuna kontuan izanik, euskarazko SNOMED CT osoaren zuzenketa egin nahiko genuke horrelako kanpainaren bidez. Horrela, jende gehiagoren oniritziarekin esleitu ahalko dizkiogu SNOMED CTri sinonimoak. Termino hobetsia aukeratzeko ataza aditu talde txiki baten esku utziko genuke, terminologoak eta osasun-langileak barnebilduz.

- **Osasun-txostenen itzulpen automatikoa egitea**.

  Alde batetik, garatu dugun prototipoaren kode irekiko bertsio malguagoa sortu nahi dugu. Izan ere, iCIMSeko *formBuilder*ek prototipoa sortzeko abantaila asko eskaintzen dizkigu, eramangarritasuna, aldakortasuna eta berehalakotasuna besteak beste. Hala ere, ez da guk garatu nahi dugun proiekturako diseinatua izan eta hainbat muga jartzen dizkio lortu nahi genukeen produktuari. Horregatik, iCIMSeko softwaretik ideiak jaso eta kode irekiko beste prototipo bat garatzen hasi gara, itzulpen automatikoa ahalbidetzeko, hiztegi dinamikoetan

aurka kontsultak bermatzeko, terminologia berria identifikatu ahal izateko, etab.

Euskara normalizazio-prozesuan dagoen hizkuntza izanik, termino berriak etengabe sortzen dira. Gure nahia da prototipoak automatikoki identifikatu ez dituen terminoak terminologia-zerbitzarira eskuz gehitzeko aukera ematea. Horrela, termino edota adiera berriak eskuz identifikatu ahal izango ditugu eta euskarazko SNOMED CT aberastu.

Dagoeneko lehen urratsak eman ditugu aplikazio berri honetan, eta, TermZerSCT eta AnaMed sistemak erabiliz, euskarazko testuetan terminoak identifikatzeko eta horien ordainak emateko gai gara.

- **Eta bukatzeko, guztion etorkizuneko lana da tesi-lan honetan sortutako euskarazko SNOMED CTren bertsioa hobetu eta erabiltzea, gaixoen egunerokoan euskarazko terminoak naturaltasunez txertatzeko.**

Bibliografia

Abdoune H., Merabti T., Darmoni S.J., eta Joubert M. Assisting the Translation of the CORE Subset of SNOMED CT Into French. In Moen A., Andersen S.K., Aarts J., eta Hurlen P., editors, *Studies in Health Technology and Informatics*, 169 lib., 819–823, 2011.

Aduriz I., Agirre E., Aldezabal I., Alegria I., Ansa O., Arregi X., Arriola J.M., Artola X., Díaz de Ilarraza A., Ezeiza N., Gojenola K., Maritxalar M., Oronoz M., Sarasola K., Soroa A., eta Urizar R. A framework for the automatic processing of Basque. *Proceedings of the Workshop on Lexical Resources for Minority Languages*, Granada, Spain, 1998.

Agirre E., Alegria I., Arregi X., Artola X., de Ilarraza A.D., Maritxalar M., Sarasola K., eta Urkia M. Xuxen: A Spelling Checker/Corrector for Basque based in Two-Level Morphology. *Proceedings of NAACL-ANLP'92, 119-125. Povo Trento. 1992.*, 1992.

Al-Haj H. eta Lavie A. The impact of Arabic morphological segmentation on broad-coverage English-to-Arabic statistical machine translation. *Machine translation*, 26(1-2):3–24, 2012.

Alani H., Kim S., Millard D.E., Weal M.J., Hall W., Lewis P.H., eta Shadbolt N.R. Automatic ontology-based knowledge extraction from web documents. *IEEE Intelligent Systems*, 18(1):14–21, 2003.

Aldezabal I., Ansa O., Arrieta B., Artola X., Ezeiza A., Hernández G., eta Lersundi M. EDBL: a General Lexical Basis for the Automatic Processing of Basque. *IRCS Workshop on linguistic databases. Philadelphia (USA).*, 2001.

Alegria I., Artola X., Sarasola K., eta Urkia M. Automatic morphological analysis of Basque. *Literary and Linguistic Computing*, 11(4):193–203, 1996.

Alegria I., Cabezon U., de Betono U.F., Labaka G., Mayor A., Sarasola K., eta Zubiaga A. Reciprocal enrichment between basque Wikipedia and machine translation. *The People's Web Meets NLP*, 101–118. Springer, 2013.

Amberger J., Bocchini C., eta Hamosh A. A new face and new challenges for Online Mendelian Inheritance in Man (OMIM®). *Human mutation*, 32(5):564–567, 2011.

Ananiadou S. A methodology for automatic term recognition. *Proceedings of the 15th conference on Computational linguistics-Volume 2*, 1034–1038. Association for Computational Linguistics, 1994.

Andersen U., Lerche J., Petersen P.G., Bernstein K., *et al.*. Adapting SNOMED CT for use in Denmark-the tools and the process of concept based translation. *Medinfo 2007: Proceedings of the 12th World Congress on Health (Medical) Informatics; Building Sustainable Health Systems*, page 2613. IOS Press, 2007.

Aranberri N. Ebaluatoia: crowd evaluation of English-Basque machine translation. Doktoretza-ikastaroetako defentsa-lana, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2016.

Aranberri N., Labaka G., de Ilarraza A.D., eta Sarasola K. Exploiting portability to build an RBMT prototype for a new source language. *Proceedings of EAMT*, 2015.

Aranberri N., Labaka G., de Ilarraza A.D., eta Sarasola K. Ebaluatoia: crowd evaluation for English–Basque machine translation. *Language Resources and Evaluation*, 1–32, 2016a.

Aranberri N., Labaka Intxauspe G., Jauregi O., Díaz de Ilarraza Sánchez A., Alegría Loinaz I., eta Agirre Bengoa E. Tectogrammar-based machine translation for English-Spanish and English-Basque. *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 73–80, 2016b.

Arregi X., Arruarte A., Artola X., Lersundi M., Santander G., eta Umbelina J. TZOS: Terminologia Zerbitzurako On-line sistema. In UPV/EHU E.H.U., editor, *Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak 2010*, 136–153, 2010.

Artetxe M. Distributional semantics and machine learning for statistical machine translation. Doktoretza-ikastaroetako defentsa-lana, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2016.

Artstein R. eta Poesio M. Inter-coder agreement for computational linguistics. *Computational Linguistics*, 34(4):555–596, 2008.

Bakhshi-Raiez F., Cornet R., eta F. de Keizer N. Development and Application of a Framework for Maintenance of Medical Terminological Systems. *Journal of the American Medical Informatics Association, JAMIA*, 15(5): 687–700, 2008.

Banay G. An introduction to medical terminology, Greek and Latin derivations. *Bulletin of the Medical Library Association*, 36(1):1–27, Jan 1948.

Bauer L. *English word-formation*. Cambridge university press, 1983.

Beesley K.R. Arabic finite-state morphological analysis and generation. *Proceedings of the 16th conference on Computational linguistics-Volume 1*, 89–94. Association for Computational Linguistics, 1996.

Bodenreider O. The Unified Medical Language System (UMLS): Integrating Biomedical Terminology. *Nucleic acids research*, 32(suppl 1):D267–D270, 2004.

Bojar O., Buck C., Federmann C., Haddow B., Koehn P., Leveling J., Monz C., Pecina P., Post M., Saint-Amand H., *et al.*. Findings of the 2014 workshop on statistical machine translation. *Proceedings of the Ninth Workshop on Statistical Machine Translation*, 12–58. Association for Computational Linguistics Baltimore, MD, USA, 2014.

Bollegala D., Kontonatsios G., eta Ananiadou S. A Cross-Lingual Similarity Measure for Detecting Biomedical Term Translations. *PloS one*, 10(6): e0126196, 2015.

Bowman S.E. Coordination of SNOMED-CT and ICD-10: getting the most out of electronic health record systems. *Coordination of SNOMED-CT and ICD-10: Getting the Most out of Electronic Health Record Systems/AHIMA, American Health Information Management Association*, 2005.

Brown E.G., Wood L., eta Wood S. The medical dictionary for regulatory activities (MedDRA). *Drug safety*, 20(2):109–117, 1999.

Cabré M.T. Elementos para una teoría de la terminología: hacia un paradigma alternativo. *La terminología. Representación y comunicación*, 69–92, 1999.

Cabré M.T. Terminología y normalización lingüística. *Espezialitate hizkerak eta terminologia jardunaldiak*, 11–25. UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua, 2003.

Campbell W., Campbell J., West W., McClay J., eta Hinrichs S. Semantic analysis of SNOMED CT for a post-coordinated database of histopathology findings. *Journal of the American Medical Informatics Association*, 21(5):885–892, 2014.

Chute C.G. Clinical Classification and Terminology: Some History and Current Observations. *Journal of the American Medical Informatics Association*, 7(3):298–303, 2000.

Claveau V. eta Zweigenbaum P. Translating biomedical terms by inferring transducers. *Conference on Artificial Intelligence in Medicine in Europe*, 236–240. Springer, 2005.

Cohen J. A Coefficient of Agreement for Nominal Scales. *Educational and psychological measurement*, 20(1), 1960.

Davis A.P., Wiegers T.C., Rosenstein M.C., eta Mattingly C.J. MEDIC: a practical disease vocabulary used at the Comparative Toxicogenomics Database. *Database*, 2012:bar065, 2012.

Deléger L., Merabti T., Lecrocq T., Joubert M., Zweigenbaum P., eta Darmoni S. A twofold strategy for translating a medical terminology into French. *AMIA Annual Symposium Proceedings*, 2010 lib., page 152. American Medical Informatics Association, 2010.

Deléger L., Merkel M., eta Zweigenbaum P. Using word alignment to extend multilingual medical terminologies. *the Proceedings of Language Resources and Evaluation 2006, Workshop on Acquiring and representing multilingual, specialized lexicons: the case of biomedicine*, 9–14, 2006.

Deléger L., Merkel M., eta Zweigenbaum P. Translating medical terminologies through word alignment in parallel text corpora. *Journal of Biomedical Informatics*, 42(4):692–701, 2009.

Delpech E., Daille B., Morin E., eta Lemaire C. Extraction of domain-specific bilingual lexicon from comparable corpora: compositional translation and ranking. *arXiv preprint arXiv:1210.5751*, 2012.

Desjardins L. Le santé des francophones du Nouveau-Brunswick. Petit-Rocher, Société des Acadiens et des Acadiennes du Nouveau-Brunswick, 2003.

Dirckx J.H. *Dx+ Rx: A physician's guide to medical writing*. Macmillan Reference USA, 1977.

EHUko Euskara Zerbitzua eta Donostiako Erizaintza Eskola. *Erizaintzako Hiztegia*. UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua, 2005.

Elhanan G., Perl Y., eta Geller J. A survey of SNOMED CT direct users, 2010: impressions and preferences regarding content and quality. *Journal of the American Medical Informatics Association*, 18(1), 2011.

Elhuyar. *Elhuyar Hiztegia Euskara/Gaztelania Castellano/Vasco*. Elhuyar, 2007a.

Elhuyar. *Elhuyar Hiztegia Euskara/Ingelesa English/Basque*. Elhuyar, 2007b.

Elhuyar. *Elhuyar Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa*. Elhuyar Edizioak & Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009.

Elia A., Maisto A., eta Pelosi S. Morphological Analysis and Generation of Monolingual and Bilingual Medical Lexicons. *International Workshop on Systems and Frameworks for Computational Morphology*, 148–165. Springer, 2015.

Elkin P.L., Brown S.H., Husser C.S., Bauer B.A., Wahner-Roedler D., Rosenbloom S.T., eta Speroff T. Evaluation of the content coverage of SNOMED CT: ability of SNOMED clinical terms to represent clinical problem lists. *Mayo Clinic Proceedings*, 81 lib., 741–748. Elsevier, 2006.

España Bonet C., Màrquez Villodre L., Labaka G., Díaz de Ilarraza Sánchez A., eta Sarasola Gabiola K. Hybrid machine translation guided by a rule-based system. *Machine translation summit XIII: proceedings of the 13th machine translation summit, September 19-23, 2011, Xiamen, China*, 554–561, 2011.

European Observatory on Health Care Systems. Luxembourg: Health system review. *Health Systems in Transition*, 1999.

Euskaltzaindia. Luis Mitxelena. 0. araua. ortografia, 1968.

Ezeiza N., Alegria I., Arriola J.M., Urizar R., eta Aduriz I. Combining stochastic and rule-based methods for disambiguation in agglutinative languages. *Proceedings of the 17th international conference on Computational linguistics-Volume 1*, 380–384. Association for Computational Linguistics, 1998.

Finkel J.R., Grenager T., eta Manning C. Incorporating Non-local Information into Information Extraction Systems by Gibbs Sampling. *Proceedings of the 43nd Annual Meeting of the Association for Computational Linguistics (ACL 2005)*, 363–370, 2005. URL `http://nlp.stanford.edu/~manning/papers/gibbscrf3.pdf`.

Franklin C. eta Agresti A. *Statistics: The art and science of learning from data*, chapter Statistical Inference: Confidence Intervals, 385–389. Upper Saddle River, New Jersey: Pearson Prentice Hall, 2007.

Fung P. eta Yee L.Y. An IR approach for translating new words from nonparallel, comparable texts. *Proceedings of the 17th international conference on Computational linguistics-Volume 1*, 414–420. Association for Computational Linguistics, 1998.

Gerkens S. eta Merkur S. Belgium: Health system review. *Health Systems in Transition*, 12(5):1–266, 2010.

Giannoni D.S. Medical writing at the periphery: The case of Italian journal editorials. *Journal of English for Academic Purposes*, 7(2):97–107, 2008.

Gieselmann P. Architecture of the Lucy translation system. *Second machine translation marathon, Wandlitz, Berlin*, 28, 2008.

Gooch P. eta Roudsari A.V. Automated recognition and post-coordination of complex clinical terms. *ITCH*, 8–12, 2011.

Grigonytė G., Kvist M., Wirén M., Velupillai S., eta Henriksson A. Swedification patterns of Latin and Greek affixes in clinical text. *Nordic Journal of Linguistics*, 39(01):5–37, 2016.

Gross M. The use of finite automata in the lexical representation of natural language. *LITP Spring School on Theoretical Computer Science*, 34–50. Springer, 1987.

Gunnarsson B.L. *Professional discourse*. Bloomsbury Publishing, 2009.

Gwet K.L. *Handbook of inter-rater reliability: The definitive guide to measuring the extent of agreement among raters*. Advanced Analytics, LLC, 2014.

